



Joxerramon Bengoetxea:

“Estatu propiorik ez duten herriek ordezkaritza zuzenik ez izateak ez du auzitan jartzen Europa”

Joxerramon Bengoetxeak (Irun, 1963) jaso du aurten Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzien Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa saria. Zuzenbidean doktorea da Edinburgheko Unibertsitatean, eta Teoria Juridikoa, Europako Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Soziologia eta Filosofia irakasten ditu UPV-EHUn. Europazale handia da, benetan sinesten du Europar Batasunean eta asmo horren alde ari da lanean. Horixe azpimarratu izan du berrikitan Eusko Ikaskuntzako lehendakari Jose Maria Muñoak, hots, Bengoetxeak Europa Euskal Herrira hurbiltzeko eta Euskal Herria European integratzen saiatzeko duen ilusio itzela.

8. or.



HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

6

Hizkuntzaren papera, etorkinak hartzean

Bernat Joan i Mari

12

Erlatibo aukeran: estilo kontu

Bittor Hidalgo

23

Jakintzaren kudeatzea administrazioaren alorrean (I)

Javier Martínez Aldanondo

Eztabaida:

Euskal hiriak XXI. mendean

Nolakoak izan behar dute euskal hiriek bizi garen mende honetan? Orain arte erabili diren hirigintza ereduak balio dute ala XXI. mendeko gizartean sortu diren beharretara egokitu behar ditugu hiriak? Mende honetan gero eta gehiago hitz egiten da ingurumena zaintzeko beharraz eta biztanleen zahartzeaz. Egoera horiei erantzungo dieten hiriak nola eraiki, ze eredu jarraitu; horixe ekarri dugu eztabaidara.

14. or.


Erreportajea:

Nola lortu elikadura osasuntsu bat?

Gure osasunaz gero eta gehiago hitz egiten da gizartean, eta horrekin batera, bizimodu osasuntsua eramateko elikadura zaindu beharraz. Baina ba al dakigu egoki elikatzen? Elikadura-ohiturak egokitu egin behar al ditugu adinaren edo norberaren egoeraren arabera? Nola lor dezakegu elikagai osasuntsuak prestatzea etxetik kanpo lan egiten badugu? Galdera horiek guztiak egin dizkiegu elikadurarekin zerikusia duten hainbat adituri.



18. or.





PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP)

Koordinatzailea:
Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lanbideak:
Kaxildo Alkorta, Kepa Altonaga, Xabier Amatria, Garbiñe Arrizabalaga, Iban Barrenetxea, Urtzi Barrenetxea, Luis Elizondo, Miel A. Elustondo, Irene Fernández, Bittor Hidalgo, Bernat Joan i Mari, Oihane Lertxundi, Inaxio Lopez de Arana, Luma, Javier Martinez, Iñaki Mendiguren, Nerea Pikabea, Miren Jone Solabarrieta, Amaia Ugartemendia, Izaskun Zuntzunegi

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argitaratutako artikulua berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legezko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde Donostia-San Sebastián 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 37. www.ivap.euskadi.net

PERTSONAIA

Daniel Castillejo, Artium museoko zuzendaria: “Artea ulertzeko gure moduak erakusten saiatzen gara”



Bere aitarengandik jaso du pinturarako zaletasuna. Hala ere, arterako duen grina margolaritzaz haratago doa. Gasteiztar honek artearen analisisian eta kudeaketan erakutsi du bere sormen artistiko guztia. Amerika aretoaren arduradun izan da urteetan. 53 urte ditu eta urte bukaeran bi urte bete-ko ditu Gasteizko Arte Garaikideko Euskal Museoko zuzendari lanetan.

Nolakoa izan zen artearekin izan zenuen lehen harremana?

Bost senide gara etxean eta trebeak izan gara marrazteko edo eskulanetarako. Nire aita margolaria zen, amateur gisa erakusketak egiten zituen; beharbada tradizio horregatik hasi nintzen ni neu ere. EHU Arte Ederren ikasketak egin ondoren, margotzen aritu nintzen; aztertzen, irakurtzen eta arte garaikidearen esparruan zer gertatzen ari zen ulertzeko ikasten.

Artistak etengabe hobetzen joan behar omen du...

Norbaitek sorkuntza lana deitzen zaion horretan aritu nahi badu, ezin du gelditu, estimuluak jaso behar ditu etengabe. Mugimendu, ideia, pertsona, adierazpen, artearen esperientzia guztiak abiadura handian mugitzen dira eta horrek adi gotea eskatzen du.

Bi urte daramatzazu Artium Museoaren zuzendari lanetan. Ze balorazio egiten duzu orain arteko lanaz?

Zuzendari lana oso bizia izaten ari da. Orain ildo nagusiak finkatu behar ditut. Lehen neuk diseinatzen nituen zuzenean erakusketak, baina orain profesional talde batek egiten du lan hori, eta bikain egiten dute gainera.

Ze irizpideren arabera aukeratzeko dira museo bateko bilduma osatuko duten arte-lanak?

Prozesua konplexua da, baina aldi berean dibertigarria eta aberasgarria. Hainbat urte lehenago hasten gara erakusketak prestatzen. Lehendabizi zer egingo den erabaki behar da: artista bat aukeratu daiteke, edo bestela gai bat hautatu edota museoko artelanekin zer-bait egin. Ikerketarako garaia izaten da eta edukiak adosten ditugu. Gero, tokia prestatu behar da, artelanak nola zainduta dauden aztertu, etab. Azken hilabeteetan egiten dira muntaia eta katalogoa. Artiumekoek ez ezik kanpoko jendeak ere parte hartzen du prozesu horretan.

Artista gazteen, ezezagunen aldeko apustua egiten duzu...

Arte garaikideko museo batean gaude, eta beraz, garaikidea izatearekin zerikusia duten jarduerak egingo dira. Ez dugu ahalmen ekonomiko handirik. Beraz, gaur egungo artisten bila jo behar dugu, hain ezagunak ez diren bila eta haien aldeko hautua egin. Gainera, asko interesatzen zaigu arte gaztea; gazteak direnean, artistek arrisku gehiago hartzen baitute, gehiago esperimendatzen baitute.

Zer egin liteke artearen mundua gizarte-ari hurbiltzeko?

Arte garaikideak zailtasun bat du: erabiltzen diren kodeak konplexuak dira. Herritarri heziketa emateko hainbat tresna bere eskura jartzen saiatzen gara. Artistak erabiltzen dituen baliabideak ez dira narratiboak; erakutsi nahi duen ideia inguratzen duten bideak erabiltzen ditu oso modu orokorrean. Gure heziketa taldeen bidez artea ulertzeko gure moduak erakusten saiatzen gara.

Ze iritzi duzu haur hezkuntzan egiten den artearen irakaskuntzaz?

Arteaz hitz egiten da, baina hori ulertu ahal izateko irizpide gutxi erabiltzen da; gehiengotan irizpide historikoak dira. Arte garaikideak problematika jakin bat du. Horregatik irakasleei prestakuntza ematen ari gara etengabe, funtsezko oinarriak barnerratu eta gero ikasleei azal diezaieten. Ikasleei arte garaikidea ulertzeko eta ikusteko moduak erakusten ahalgintzen gara.

Zein dira Artium museoaren hurrengo erronkak?

Gure helburu nagusia museoaren eta gizartearen artean harreman konplizea ezartzea da; orokorrean gizarteak izan behar duen gure ikuspuntua eman eta publikoarekiko hesi horiek gainditu. Horrez gain, museo demokratikoa, gardena eta parte-hartzailea izatea nahi dugu.

Nerea Pikabea
Kazetaria

Memoria (historikoa)

Ba al dakigu Covadongakoa? Bai? Motxean:

VIII. mendearen hasieran musulmanak penintsula honetan hegoaldeetik etorkin sartu eta laster iparraldean ziren, penintsularen iparraldean ez ezik, ia Frantziako goiko (?) muturrean ere bai. Abiada hartu eta geratu ezin! Poitiers inguruan –bai joan ere!– jipoi eman zieten Karlos Martel “Mailua” deituaren frankoek –ez Sarkozyrenak–, eta buelta hartu behar ba!, eta penintsulara jaitsi (?) ziren. Eta penintsulan zer? Don Pelayo buruzagi godoa bere godoekin musulmanei beste jipoi bat emateko prest Asturiasko Covadongan. Egurra! Hango guda zenbaterainokoa izan zen? Batzuen ustez oso garrantzitsua, beste batzuek diotenez gudaxkatxo kaxkar bat. Albeldako kronikan eta Alfonso III.aren jasota daude gatazka hartako zenbait gorabehera. Tradizioaren arabera, kristauei Ama Birjinak lagundu zien. Bai: kristauak goian omen zuden, mendian; musulmanak beheago. Geziak errazago jaurtitzen dira goitik behera behetik gora baino; abantaila hori bazuten kristauek; baina, gainera, mairuek behetik gora ahal zuten moduan jaurtitzen zituztenak euren kontra jausten omen zitzaizkien, bortitz, Ama Birjinak norabidea aldatuta. Laguntza hura eskertzeko eraiki zioten kristauek Ama Birjinari Covadongako santutegia.

Aurrekoan aipatu nuen asturiar bat, Quinin, “*Don Pelayo yera vascu; leyéralo yo en un libru*” esaten zuena. Covadongakoa azaltzeko bestelako bertsioa du hark. Ama Birjinak parterik ez zuela izan hartan, hori esaten du. Hara:

Covadongako borroka, gudua edo dena delakoa, udazkenean izan omen zen, urrian edo azaroan. Garai hartan –722. urtean– latakotako janaririk ez zuten; ez zegoen gaur eguneko aukerarik. Udazken hasieran Asturiasen hurrak eta intxaurrek jaten zituzten, gaztainak ere bai azaroan; horiek janda, egarritu egiten da. Edateko, berriz, sagardo berria; sagardo berriak, asko edanda, kakaria (beherakoa, pirri-pirria) eragiten du. Mairuek

ez omen zuten horren berri, eta borroka aurretik intxaurrek eta hurrak jan, eta sagardo berria edan omen zuten.

Mendian goian Don Pelayo, bere godo kristauekin. Behean, musulmanak, esandako jatordua eginda. Eta jo ta ke irabazi arte! Azkonak, geziak, harriak..., erruz goitik behera. Behetik gora, ordea, hasieran bai gezi batzuk, baina indarka jardun behar eta sagardo berria tripak astintzen hasi eta... Hala ezin ba! Eta Don Pelayo jabe. Han ez zuen ezer egin Ama Birjinak.



Betikoa: nahi duenak nahi duena honetan ere. Ondorengo hau anekdota xumea da, baina esanguratsua. Ez dela urte asko arte, *Boga, boga* euskaldunen bikarbonatoa zen, lagunarteko jatordu guztietan kantatzen genuen-eta. Eta hamaikatxo mozkor kantatua da *Asturias patria querida*. Kantatu orain! Quininek bere hizkeran esaten du: “Kanta hori lehen mozkorren kanta zen; ereserki edo himno egin dute eta mozkortuta kantatzen bada, haserretu egiten dira (asturiar asko)”.

Doinua betikoa du, hitzak berak... Zer aldatu da?

Zaragozako Pilar-en han dago gorriek-edo jaurtitako-edo bonba, Ama Birjinari esker lehertu ez zena. Urteak joan, aldatetak etorri, han dago. Lehergarria kenduta dauka, seguru asko Ama Birjina nekatu ez dadin, beti milagrotan aritu beharra neketsua baita.

Gure aitona-eta ez zuten ez makarroiak ez lentejarik jaten, ezta tomate gordinik eta ez beste barazki asko ere... Gu lentejak jaten, eta esaten zigun: “*Zer jan beharko ote duzue zuek!*”.

Jan ez dakit, baina sinistu...

Kaxildo Alkorta
Laguna

JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN-BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com





Mundua on line

Metaposta

Euskadi Informazio Gizartean 2010 Planari lotutako proiektu garrantzitsu honen helburua, herritarrei Interneten erabiltzeko moduko postontzi eta gordailu elektronikoa eskaintzea da, eta erabiltzaileek mota guztietako agiriak era seguru eta iraunkorrean jaso eta gorde ahal izan ditzaten eratu da.

Metaposta izeneko zerbitzu-enpresa zortzi bazkide hauek bultzatu dute: Ezten (SPRIren eta Eusko Jaurlaritzaren menpeko arrisku-kapitaleko funtsa), EJE (Jaurlaritzaren informatika-elkarte), Bilboko, Gipuzkoako eta Arabako Merkataritza Ganberak, Tecnalia Korporazioa, Gupost marketing zuzeneko enpresa eta Mondragón Inversiones delakoa.

Etxeetako ohiko postontziak iraganeko kontu bilakatuko dira Interneteko gordailu elektronikoak garatu ahal. Posta elektronikoa eskutitzei nagusitu zaien bezalaxe, sistema berri honen hedapenak erakundeekin, negozioekin edota bankuekin zerikusia duen korrespondentziaren eta faktura guztien desagerpena ekar lezake.

Metapostak segurtasuna eta konfidentziasuna bermatuta dauzkan esparru birtuala eskaini behar die partikularrei eta enpresei, tamaina mugagabekoa eta bizitza osorako bermea duena, bertan era guztietako agiriak jaso eta gorde ahal izateko.

Interneten erabiltzeko moduko postontzi eta kutxa-gordailu elektronikoa izateaz gain, Metaposta tresna egokia izan daiteke jaso beharreko agirien sakabanaketa ekiditeko. Horrela, sarbide bakarreko sistema moduan antola daiteke, 300 enpresa eta erakunde publiko baino gehiagok igorritako agiri eta ohartarazpenak kudeatzeko. Sistema honen bidez, alde aurretik hitzartutako entitateen mezuak baino ez dira jasoko; horixe da posta elektronikoaren aldean eskaintzen duen abantaila, eta ondorioz, ez dago aukerarik spam (zabor-posta) edo igorle ezezagunek bidalitako kate-mezuak jasotzeko.

Sistemak partikularrei eta enpresei eskaintzen dizkien abantailaz gain, ekimen hau aurrera ateratzea erraztu duen politikak Euskadin administrazio elektronikoa garatzea du helburu, zerbitzu digital aurreratuen erabilera masiboa bultzatuz eta Informazio Teknologia Berrien mekanismoak ezagutzen ez dituzten pertsonen bazterkeriaren aurka borrokatuz. Horren haritik, Metaposta pizgarria izan daiteke Internet eta sinadura elektronikoaren erabilera eta jakinarazpenetarako, edota agiriak elektronikoki eta segurtasun-bermeaz artxibatze protokolo berrien erabilera bultzatzeko.

Luis Elizondo
luis@hegoa.info

IVAPeko Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko memoriak eskuragarri

Open Data Euskadi zerbitzuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak IVAPeko Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko hainbat itzulpen memoria askatu eta guztion eskura jarri ditu. Ekimen horrek bi aukera eskaintzen dizkigu:

IZOko eta Eusko Jaurlaritzako itzultzaileen lana argitaratzea, beste hainbat profesionalentzat baliagarria izan daitekeelakoan.

Beste hainbat itzulpen memoria jasoz gero, bertara txertatzea. Horrela, lan-tresna indartsuago bat sortuko litzateke.

IZOK itzulpen memoria horiek TMX formatuan eta Zip bidez trinkotuak eskaini ditu. TMX formatua XML lengoaiaren aldaera bat da. Formatu horrek itzulpen memoriak edozein ordenagailutan irekitzea ahalbidetzen du, baldin eta itzulpen memoriak onartzen dituen programaren bat instalatua izanez gero; esaterako Wordfast, Trados, Transit edo Déjà-vu.

Karmelegartua idazlea zendu da (Aretxabaleta, 1959-2010)

Karmelegartua idazle aretxabaletarrak aurtengo udan utzi gintuen, *Itsaso kontra bat* bere hirugarren lana izango dena argitaratzeko prest utzita. Ogibidez irakasle, Bergarako Idazle Eskolako kidea zen. Idazle berantiarra izanagatik, lan ederrak eskaini zizkigun. Bere lehen lana 2007an argitaratu zuen: *Hitzak Orbainetan* poema liburua; bi urte beranduago *Denbora enaren hegaletan*, Pamielan. Argitaletxe horrek honela definitzen zuen idazlea: "Bizitza poesia bilakatzen zuen poeta". Horrela gogoratu nahi dugu gure bihotzetan *Administrazioa euskaraz aldizkariko* kideok ere. Ez adiorik, mila esker baizik.

UETS-Udaletako euskara teknikarien sarea

Azken urte hauetan hainbat arlotan euskararen erabilera sustatzeko dinamika berezia sortzen ari da; horren lekuko dira Gipuzkoako Foru Aldundiak emaniko urratsak eta, Emun kooperatibaren aholkularitzapean, Gipuzkoako udal teknikariei laguntzeko sortutako programa: Udal<>ekin.

Programa horren baitan txertatzen da UETS intraneta, udale-tako euskara teknikarien sarea abiarazi duen zerbitzua. Sare honen helburua laguntza zehatza ematea da euskararen sustapen edo normalkuntza lanetan ari diren udal teknikariei.

Hala ere, programa honen jomuga sarea osatzea baino harantzago doa. Hauek dira, besteak beste, jorratu nahi diren lan ildoak: prestakuntza sendotzea, HizBeGia'07 ikerketa lana gizartratzea, eta ikerketa bultzatzea.

Hizkuntzaren papera, etorkinak hartzean

Etorkinen harrera linguistikoan hizkuntzak betetzen duen papera aztertzerakoan, ezin daitezke parametro berdinak erabili ondo errotutako hizkuntzak, erabat normalizatuak, dauzkaten erkidegoetan, egoera kaskarrean dauden hizkuntzak dauzkaten erkidegoetan, edota hizkuntza gutxituen edozein tipologia daukatenetan. Adibidez, bai erabileraren aldetik, bai erakundearen babesaren aldetik erabat errotutako hizkuntzak dauzkaten herrialdeen kasuan, etorkinek ez dute lanik hartzen hizkuntza ikasi edo ez ikasi pentsatzen: ikasi egiten dute eta kito. Halatsu, gizarte horietan bertakoak ere ez dira etorkinek bertako fisionomia soziolinguistikoa aldatuko duten beldur. Badakite etorri berriek hizkuntza orokorra berengantuko dutela, eta immigranteak etortzeak ez duela halako arazorik eragingo arlo horretan.

Halere, etorkinak asko badira, korapilatu egiten da kontua. Kataluniako gobernari sarri galdetu izan diote harrera linguistikoari buruz, katalanaren aldean (gizartean nahiz erakundeetan) askoz finkatuago dauden hizkuntzak dituzten herrialdeetako gobernuek: adibidez, Quebeceek, Flandesek..., baita Frantziak ere. Immigranteen ehuneko jakin batzuetara iristean, barneratze linguistikoaren bitarteko tradizionalak ez dira aski. Eta, orduan, irudimen handiagoa erabili behar da eta konponbide eraginkorragoak eman.

Artikulu honetan, katalana hitz egiten den eremuan izandako aldaketa demografikoak jorratuko ditugu; etorkinak gizartean eta hizkuntzan barneratzeko, erakundeek daukaten oinarritzko tresnaren bat edo beste aipatuko dugu; barneratze hori bermatu ahal izateko lege-esparrua azalduko dugu, eta gure hizkuntza-komunitatea beste hiztun batzuei ere zabaltzeko eraginkor izan den programa batzuen berri emango dugu.

Aldaketa demografikoak katalanaren eremuan

Azkeneko urteetan, aldaketa itzela izan da katalan-hiztunen eremuan (Katalunia, País Valencià eta Illes Balears). Milioi eta erdi etorkin baino gehiago etorri dira azkenaldian gure herrira; XXI. mende hasieran gurean zeuden hamabi milioi biztanle ingururi gehitu zaizkio. Katalunia, Valentzia eta Balearretako herritar berri horiez gain, aurretik ere izan ditugu etorkinak XX. mendean, boladaka-boladaka etorriak, gure garapen ekonomikorako funtsezko izan diren bi fenomeno oinarritzok erakarritak: industriaren garapenak, batetik, eta masa-turismoaren hedapenak, bestetik.

Herritarren Hizkuntza Erabilerari buruzko Galdetegiaren (HHEG, 2008) azkeneko edizioak erakutsi duenez, ez da %30era heltzen kanpotik etorritako aitona-amonik ez duen

katalanen portzentaia. Eta gaur egungo Kataluniako biztanleriaren %50 gutxi gorabehera (hori baino apurtxo bat gehiago Bartzelonako metropolian) ez da gure herrialdean jaiotakoa.

Halere, badira ezberdintasun nabarmenak lehenengo immigrazio-oldearen eta azkeneko honen artean. Horietako bat aurreko oldean gure herrialdeak bizi zuen egoera da. Francoren diktaduraren garaian izan zen, nagusiki. Garai hartan, katalana debekatuta zegoen esparru publikoan eta hezkuntza-sisteman. Ofiziala zen oro edo hezkuntzarekin lotura zuen oro espainolez egiten zen. Katalana, hortaz, "ezkutuan" geratu zen katalan berrientzat, kaleko kontuetan ez bazen. Eta gure herrialdeko herritar gehientsuenak ordurako elebidunduta zeudenez (hau da, espainolez egiteko lain bazekiten jada), bertakoen eta etorkinen arteko harremanak gaztelaniaz izaten ziren ia beti.

Gauzak horrela, etorritakoen zati bat gure hizkuntza-komunitatera bildu zen; baina beste zati batek ez zuen inongo premiarik sentitu gugana biltzeko, batez ere, Herri Katalanetako hiri nagusien inguruan sortu ziren logela-hirietan kokatu zirenek. Badugu, hortaz, biztanleen zati bat, Katalunian, Valentzian edo Balearretan hiru edo lau belaunaldiz bizi izan eta gero, oraindik ere katalana bereganatu ez duena.

Gure herrira etorri zen lehenengo etorkin-olde horren hizkuntza homogenea zen; izan ere, Iberiar Penintsulako gaztelania-hiztunen eremukoak ziren gehientsuenak, eta, hortaz, gaztelaniaz mintzatzen ziren gehienak.

Gaur egungo etorkinak katalan hizkuntzarako baldintza soziopolitiko askoz hobeetan etorri dira gurera. Gaur egun, hizkuntza ofiziala da, gaztelaniarekin batera (eta okzitaniarekin batera, Kataluniaren kasuan), eskoletan irakasten da, eta ardatz akademikoa da Joan Lluís Vives sarea osatzen duten hemezortzi unibertsitateetan; hasi Perpinyatik eta Alacantera, hasi Lleidatik eta Palmara... Ikusten denez, hizkuntzaren estatusa nabarmen hobetu da. Horrenbestez, etorkinek gure hizkuntza bereganatzea askoz errazagoa da orain.

Alabaina, egungo immigrazioa askoz heterogeneoagoa da hizkuntzaren aldetik. Etorkin asko Latinoamerikatik datoz (hauek ere, hasierako etorkinek bezalatsu, gaztelania dute hizkuntza). Beste asko Afrikatik edo Asiatik datoz, eta bakoi-tzak bere hizkuntza dakar (batzuk hiztun askokoak). Hala, 2008ko HHEG galdetegiak, lehenengo aldiz, ez du Katalunia elebiduna erakusten, eleanitza baizik. Ama hizkuntza katalana edo gaztelania daukaten herritarrekin batera, berrehun mila herritar berri ditugu arabiarra edo amazigera hizkuntza daukatenak; hirurogei mila baino gehiago errumanieraz hitz egiten dutenak; beste hirurogei mila galizieraz edo portugesez hitz egiten dutenak, eta dozenaka mila herritar urdu,



txinera, tagalo edo wolofera hitz egiten dutenak. Hitzun horien eta gure artean dagoen distantzia (beren hizkuntza jatorri erromanikoa ez denez) konpentsatu egiten da, nolabait, katalanaren aurrean beraien jarrera zabalagoa izaten baita eta ikasteko beharizana (eta erabilgarritasuna) onartzen baitute.

CPNL: harrera linguistikorako tresna

Duela 20 urte jarri zen martxan Katalunian Consorci per a la Normalització Lingüística (CPNL) delakoa. Hori Kataluniako Generalitat, hainbat udaletxe, consell comarcal direlako gehienak eta zenbait aldundi biltzen dituen kontsorzioa da, eta horren helburua gure herriko helduei katalana irakasteko tresna bateratzea da (Balear Uharteetan badute CPNL kontsorzioaren organismo paraleloa: Consorci per al Foment i l'Ús de la Llengua Catalana, COFUC).

Hasiera batean, CPNLk lau urte iraungo zuela aurreikusi zen (lehenengo immigrazioko gaztelania-hiztunak gure hizkuntzara ekartzeko nahikoa izango zelakoan), eta gero desagertu egingo zela. Alabaina, XXI. mendeko gorabeherek erabat aldatu dute ikuspegi hori.

Katalunian, immigrazioa egiturazkoa da, errokoa. Horrenbestez, erakunde bat behar dugu helduen katalan-prestakuntza modu egoki eta azkarrean eskainiko duena eta harrera linguistikoa bermatuko duena. Jakina, eskolatzeko adinean dauden ume eta gazteek ohiko hezkuntza-sisteman ikasten dute hizkuntza.

CPNLk berak antolatzen ditu hasierako harrera linguistikoa egin eta geroko katalan-prestakuntzarako beharrezko ikastarok; horrez gain, bere jardura osatzen du dinamizazio- eta gizartearekin harreman-lanak eginez. Adibidez, Voluntariats per la Llengua (VxL) programa lantzen du, hizkuntza boluntarioen programa. Programaren xedea da oraindik katalanez etorri handirik ez duten hiztunak –oraintxe hitz egiten hasi direlako– eta katalanez hitz egiten dakitenak (betidanik edo ikasita) elkar-teea. Ordubeteko hamar saio dira (baina hizkuntza-bikoteko

biek nahi izanez gero luza daiteke). Programa 2003. urtean jarri zen abian, eta harrezkero, 50.000 hizkuntza-bikote baino gehiago uztartu ditugu Katalunian. Azkeneko urteetan, Andorra, Valentzia eta Balear Uharteetara ere zabaldu da egitasmoa. VxL osagarri ezin hobea da hezkuntza zorrozki akademikoa aberasteko, eta bide ematen du, gainera, etorkinek Kataluniako gizartearen ohiturak eta usadioak ezagutu eta bereganatu ditzaten.

Lege-esparru berria

Harrera linguistikoa ahalik eta baldintza egokienetan arautzeko, helburu horiek lortzen lagungarri izango den lege-esparrua osatu dugu Katalunian. Akordio nazional batek (Immigrazioa-ko Akordio Nazionala) eta lege batek (Harrera Legea) osatzen dute lege-esparrua. Biek ere gobernuaren osatzen duten alderdien onarpena daukate (PSC-ERC-ICV), bai eta Kataluniako Parlamentuko oposizioko talde nagusiarena ere (CIU). PP eta Ciudadans alderdiak geratu dira akordio horretatik kanpo, horiexek bakarrik (alegia, Kataluniako ganberako ordezkariaren %10).

Ostertz soziolinguistikoa dagokionez, gure lege-esparruak xedatzen du katalanez jakitea ezinbestekoa, funtsezkoa, dela etorkinak bertan errotzeko, eta lortu beharreko helburutzat jarri du katalana izatea, urratsez urrats, hainbat hizkuntzatan mintzo den gizartearen hizkuntza komuna.

Gure ustez, hizkuntza politika politika soziala da eta badu xede argi bat: Kataluniako herritar guztiek (etorkinak barne, jakina) gure gizartearen moldatzeko baldintza berdinak izatea.

Bernat Joan i Mari
Kataluniako Hizkuntza Politikako idazkari nagusia



Joxerramon Bengoetxea:

“Estatu barnean konpontzen diren arazoak ez ditu Europak oztopatuko”

Bigarren Mundu Gerra ostean, Europa fundatzeari ekin zioten hainbat buruzagik, gisako suntsipenik berriz gerta ez zedin. Behin betiko eragotzi nahi zituzten kontinente barneko herrialdeen arteko zatiketa, gerra, triskantza eta bortxa. Europa asmatu zuten, nahiz eta gaur bezala orduan ere, urak nor bere errotara eramaten saiatu ziren, nor bere estatua besterenaren gainetik jartzen. Estatua beste sabairik ez balego bezala jokatu zuten eta jokatzeko du askok, oraindik. Europartasunaren zentzurik gabe, fidagaitz eta sinesgogor. Horretan, “Europarrak gara!”, Joxerramon Bengoetxea irakasle eta pentsalariaren heia heldu da ondotik.

Euskadi European integratzeko egindako ikerketa lanarengatik jaso duzu saria. Nahitaezko da lehenbiziko galdera: zein leku dagokio Euskadiri European?

Galdera nahitaezkoa, diozu. Galdera garrantzizkoa, eta erantzuten zaila, esango nuke nik... Lehenengo eginkizuna Euskadi definitzea genuke. Zertaz ari garen, alegia. Erkidegoa? Euskal Herria? Hego Euskal Herria?... Horren arabera, ezberdinak lirateke erantzunak ere. Bestalde, askoren ametsa, batetik, eta gaur egungo errealitatea, bestetik, bi planoak berezi beharko genituzke, hortik ere erantzun ezberdinak izango genituzke-eta. Nire ametsa abiapuntu hartu eta hasiko naiz zure galderari erantzuten... Nik Europa federatu bat dut amets. Bertan federatzen diren izaki eta entitateek ez dute zertan izan behar gaur egun ezagutzen ditugun estatuak. Ikuspegi dinamiko bat darabil, beraz, nire ametsa azaltzeko garaian. Amets horretan ez du garrantzi handirik zein diren federatzen diren entitateak, ezta entitate horien subiranotasunak ere. Are gehiago, subiranotasun delako horrek dramatismoa galtzen du nik gogoan dudana

European, karga sinbolikoa galtzen du... Europa berri horretan Euskal Herria nahi nuke ikusi nik, hots, bertan bateratua egon nahi duen Euskal Herria. Eta hori euskara duten herrialdeen lurra izango balitz, ongi, baina ez balitz, ez luke garrantzirik, Euskal Herriko alde guztiak European federatuko liratekeelako, alde edo moldez. Alegia, Europa izango genuke auzune, era batera edo bestera, eraikin berean, edo ezberdinetan.

“Ordezkaritza herritarrengandik ahalik eta gertuen egon behar duela pentsatzen baldin badugu, Espainiaren sistemak huts egiten du”

Hori, zure ametsari dagokionez. Zertan da dugun errealitatea?

Prozesua oso da dinamikoa, aldatzen ari da uneoro. Lisboako Itunaren osteko Europa ez da Niza osteko Europa. Sakon aldatzen ari da, nahiz eta ez ditugun aldaketak ikusten, aldaketa instituzionalak direlako. Dena dela, garrantzizko kanbioak dira.

Europa eraldatzen ari da, eta Europarekin batera, hura eratu duten estatuen figura. Eman dezagun, Espainia. 1986an European sartu zen Espainia hura ez da, gaur egun, ordukoa. Izugarri aldatu da: dituen kompetentziak, baliabideak, erabakimena... guztiz aldatu dira. Estatua aldatu da, estatukidea aldatu da, Europa bera aldatu da. Kontua izango da estatu

federatuak –edota sasifederatuak, deszentralizatuak–, nola kokatuko diren Europan, hau da, estatu horrek zein joko eman- go ote dien beraren azpiko entitateei. Kasurako, gureari, eta EAEz ari naiz orain, figura juridiko jakin eta zehatza duen entitate horretaz... Europaren oraingo egiturak bide xume batzuk irekitzen ditu –ez dira bide zabalak, baina atea dira, aukerak, behinik behin–, egituraren parte hartzeko, nahiz eta ez izan parte hartze zuzena. Baina aukerak dira eta, niri dagokidanez, ametsa gauzatu artean, ditugun ate eta aukera guztiak esploratu behar ditugu. Esploratu, ikertu, eta bide berriak saiatu... Horixe nire ikuspegia!

Gaur egun, errealitateari heldurik, zein leku du EAEk Europan?

Leku mugatu bat. Erakunde erakunde bereizi beharko genuke, hala ere. Ministroen Kontseiluan parte hartzeko eskubidea du, gai guztietan ez bada ere, eta Espainiako ministroen baten eskutik. Horra aukera bat, lehen ez zegoena, 2004an sartu zen-eta indarrean, Espainian sozialistak nagusitu zirenean. Parte hartze sinbolikoa da, testimoniala, nahi baduzu, baina zerbait da. Bestalde, hor da Eskualdeen Batzordea bera ere. Botere mugatukoa da, baina botereduna, eta, bestalde, legegintza eskuduntzak dituzten eskualdeak mobilizatzen hasiak dira, beraien estatus berezia ezagutua izan dadin. Horra beste aukera txiki bat. Alegia, txikiak, baina aukerak betiere. Ez dugu esango EAEk estatu batek izango lukeen estatus bera duela, baina badu zerbait.

Zergatik aukera “txikiak” behin eta berriz? Nondik datoz mugak?

Prozesu bikoitza da. Mugak ez datoz, besterik gabe, estatuetatik. Europar integrazio prozesua estatuak berek markatu dute, markatzen ari dira. Estatuak bere buruaren kontzepzio federatua baldin badu –Alemaniak, kasu–, Europari dagozkion gaiak ere modu federatuan landu eta pentsatuko ditu. Aldiz, bere buruaren kontzepzio zentralista duen estatuak –nahiz eta halako konstituzio batean bere burua sasifederal agertu–, bada, horren arabera jokatu du. Estatuak bere buruaz duen ideia diodanean, estatu- tateko buruzagiek duten kontzepzioaz ari naiz... Halako buruzagi batek estatuaren kontzepzio unitarioa baldin badu oraindik, bada, ikusmolde horixe eramango du Europaraino, horixe baita kasua. Era berean, gerta liteke estatu bereko bi buruzagik delako estatu horren kontzepzio ezberdina izatea –eman dezagun, federatua, batek; zentralista, besteak–, eta halaxe agertzea Europako instantzietan. Politikariaren jarrera pertsonalak esateko handia du auzi honetan. Jakina, delako politikari horrek ez du Europan doanean bere burua bakarrik ikusiko, han beste hainbat bururen egingo du topo, eta bera zentralista izanagatik ere, Alemaniako edota Austriako ordezkariekin batera gertatzen denean, beharbada, bera datorren estatuaren diren erkidegoek jokatu beharko luketen rolaz pentsatzen hasi beharko du. “Beharbada,

erkidegoa bera estatu izan liteke!”, pentsatuko du, agian. Jarre- rak oso garrantzitsuak iruditzen zaizkit. Alabaina, Konstituzio Auzitegi batek ez badu delako kontzepzio hori garatzen, zer eskatu behar diogu Europan den ministro bati?

Estaturik gabeko herrien egoera da Europaren sinesgarritasuna auzitan jartzen duen gorabehera nagusia, ala bada besterik?

Bere estatu propiorik ez duten herriek ordezkaritza zuzenik ez izate- ak ez du auzitan jartzen Europaren erakuntza prozesua. Horrek ez du Europa kolokan jartzen, estatu gabe- ko herriek arazo hori ez dute-eta Europarekin. Euskadik, esaterako, ez du Europarekin problemarik. Izate- kotan, Espainia nola eratzen den izango du problema. Ibarretxeren garaian proposamen garbia egin zen, estatus hori garatzeari zegokiona. Badakigu zer erantzun jaso zuen

Madrilen, eta Euskadin bertan, ez zuen-eta euskal abertzaleen adostasuna besterik lortu. Bazen adostasun maila bat, baina beste zatia falta zen. Uste dut denon arteko ikuspegi partekatua landu behar dugula. Eginkizun dugu hori. Eta gure artean landu ondoren, Espainian ere landu egin behar da. Horra Kataluniaren kasua... Ematen du Sisiforen patuari loturik bizitzera kondenatu- ta gaudela... Ikuspegi partekatua landu eta, gero, beharpenak ditugu! Baina horixe da gaur-gaurkoz daukagun markoa. Bitartean, zer egin behar dugun? Etsi ez, jarraitu, eta ondokoa konbentzitu... Nik ez dut beste biderik ikusten... Europa ez da problema. Izan liteke, bai, baina estatu barnean konpon- tzen direnak ez ditu Europak oztopatuko. Horra Ipar Irlandaren kasua... Britainia Handia eta Irlandako Errepublika akordio bila abiatu dire- nean zer egin du, bada, Europak? Proze- sua erraztu, eta diruz lagundu!

Europako parlamentura estatu- tateko ordezkari politiko ez irizkideak –are gehiago, bata bestearen kontrakoak dire- nak–, joatea aberasgarri da, ala galga proiektuak aitziz- natzeko garaian?

Bi gai ere badira galdera horren atzean. Batetik, nola ordezkatzeko gaituzten euro- par parlamentuan, eta, bes- tetik, nor doan hara. Nola ordezkatzeko gaituzten, estatu- tatean bakoitzak erabakitzen du, ez Europak. Adibidez, Frantziak –hain zentraldua den



Frantzia horrek—, lurraldekako ordezkariak ditu, Frantzia oso-rako zerrendarik gabe. Espainian, aldiz, lurralde osoari dagoz-kion ordezkariak hautatu ohi dira. Esan ohi denez, barruti bakarraren sistema dago indarrean. Baina, berriz ere, estatuak erabakitzen du, ez Europak! Erresuma Batuaren kasuan, Esko-ziak beste inork ez ditu bidaltzen eskoziar ordezkariak Europa-
ra. Espainian barruti bakarra erabaki zuten. Zergatik? Denok sumatzen ditugu arrazoiak... Ordezkariak herritarrengandik ahalik eta gertuen egon behar duela pentsatzen baldin badugu, bistan da Espainiaren sistemak huts egiten diola printzipio horri. Aldiz, printzipioa baldin bada estatuaren ordezkariak bat eta bakarra eratzea, barruti bakarra da formula, bai, baina horre-
tarako dago Europako Kontseilua, estatuak ordezkatzeko dituen erakundeak. Herritarrak ordezkatzeko dugu parlamentua. Horren arabera, eta nire ustez, Espainiak gaizki aukeratu du barruti bakarraren sistema. Gure eginkizuna, beraz, hori aldatzea izan beharko litzateke, geure barruti berezia izaten saiatzea, Fran-tziak duen bezalako sistema, alegia. Eta, jakina denez, lurralde-
kako ordezkariak sistemak ez du Frantzia desegin, ez haren errepublika izaera galtzera eramanez, ez *égalité* printzipioa sun-tsituz, ez deusik!



Eta galderari asmatu diozun bigarren alderdiari dagokionez, alegia, nor eta nor doan Europara? Nola-ko ordezkariak bidaltzen ditugu?

Proposatzen diren hautagaien figurak aztertu eta gauzak aldatzen ari direla esango nuke. Garai batean, bazirudien Europara ibilbi-de amaieran ziren politikariak joaten zirela. Gaur egun, aldiz, gero eta pisu handiagoa duten politikariak joaten dira, batez ere Lisboako Itunaren ondoren. Parlamentua legegile bihurtu da, Kontseiluarekin batera, eta pisu eta gaitasun handiko politikaria behar da han. Esaterako, Euskaditik Europara Legebiltzarreko presidente ohi bat bidaltzeak esan nahi du apustua sendoa dela; ordezkariak indartsua bidali delako. Beste zenbait hautetsiren kasuan, bestelako arrazoi batzuk ageri dira haien izendapenaren atzean, nire ustez.

Nola ikusten dute Europako herritarrek Europa bera? Iparraldeko herrietakoek; Portugal, Italia eta Turkia estatu nagusietako herritarrek; estatuen barruko nazio gutxituetakoek... ezin denek era bat eta berean ikusi Europa, ala?


Ez. Guk, euskaldunok, ez dugu Euskal Herria bera ere modu berean ikusten eta nola ikusiko dute, bada, europar guztiek modu berean Europa? Ezinezkoa da. Siziliarrei galdetu, eta ez dago Europari buruzko ikuspegi siziliarrik. Era berean, ez dago euskal ikuspeirik. Nori galdetzen diogun, halakoxe erantzuna jasoko dugu. Dena den, dinamika ezberdinak eraten direla esango nuke nik. Batetik, zentroa eta periferia ditugu: Europaren biho-tzean dauden herrialdeek modu berezian bizi dute batasuna, eta periferian daudenek, aldiz, beste era batera. Horrek badu bere logika. Bestetik, Ekialde–Mendebaldeak ere hor dira: polonia-
rrak ez du frantziarrak duen Europaren irudi bera izango, Geo-politikak gauzak era batera edo bestera ulertzera bultzatzen gaitu-eta. Periferian bertan, greziarrak ez du turkiarren uste bera izango. Greziarrak, beharbada, sarrailatzat ikusiko du Euro-pa, turkiarra sar ez dadin. Haatik, turkiarrak aukeratzat ikusiko du Europa, bere burua mundu modernoaren parte ikusi ahal izateko moduan. Hala ere, itxaron zerrendak European sartzekoak dira, ez irteteko, ez dezagun hori ahaztu. Estatu txikia den, ala handia; estatu federatua ala unitarioa; nazio aniztuna, edo nazio bakarrekoa... Delako estatu horrek industrian, ala zerbitzuetan duen interes handiagoa... Ezberdintasunak ikaragarriak dira.

Aldeak alde, Europa dira denak...

Pasadizo bat kontatuko dizut. Txinan izana naiz oraindik orain, eta Shangaiko Expo erakusketa ikusteko parada izan genuen. Europako Batasuna, esaterako, Belgikaren eskutik ageri zen. Europako estatuetak pabilioi gehienek bina bandera ageri zituz-ten: nor bere estatuarena, eta Europakoa. Espainiak, Alema-niak, Austriak, Poloniak... bi banderak zituzten. Aldiz, ez Frantziak, ez Britainia Handiak zuten Europako banderarik. Nik, neure artean, pentsatu nuen Eskoziakoa banintz minduta egongo nintzela: “Gu ez al gara, bada, Europako Batasuneko kide?”. Zergatik sinbolo mailako gorabehera hori? Europako Batasune-ko kide agertzeak bere burua gutxiestea esan nahiko balu beza-la. Eta ez dezagun ahaztu Frantziak eta Britainia Handiak Txinan izan duten presentzia historikoa, haren ustelkerian izan duten esku hartzea. XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasieraz ari naiz... Nonbait, bi herrialdeok metropoli gisa ager-tu nahi zuten oraindik ere, Europar Batasuna oztupo balute beza-la. Eta ez Frantziak ez Britainia Handiak zuten bandera urdinik. Horrek ere zer edo zer adierazi nahi du, sinbologia mailan bada ere, alegia... Frantziak modu instrumentalean ikusi nahi ote du, bada, Europa? Frantziako *grandeur*a areagotu nahi ote du, orain-dik? Britainia Handiak, berriz, merkatu gisa besterik ez ote du, bada, ikusten Europa? Europari buruzko ikuspegiaren ere, zen-bat buru hainbat aburu, eta aburu bakoitzari dagokion azalpen bila ibiltzea dagokigu guri!

**Miel A. Elustondo
Idazlea eta argazkilaria**

Semearen hezurrak, amaren bihotza



Gure aita zena herriko enterradorea izan zen urte askoan. Alkate ez izatearren hartu omen zuen postu hura; herrian arduraren bat bereganatu behar bazuen, hildakoek biziek baino buruhauste gutxiago emango ziotela pentsatu omen zuen. Eta hala zen; bestela gehiegi, baina zeregin hartan ez zuen lan handirik izaten, gutxi baikinena herrian, eta hiltzeko presarik inork ez; beraz, kezka berezirik ez gure aitak, harik eta...

Egun batean...

–Joxe, hango apaizak hots egin dit eskerrak emanez, eta lasai egoteko... arazorik gabe egin zutela bidea, eta ongi bukatu dela dena, lasai egoteko –esan zion Don Juanek gure aitari.

Bi egun lehenago...

“Orain ere badugu, ba, norbait” marmarka esan eta petraldu-ta jaiki zen aita.

Baserrian siesta ez zen kapritxoa, beharra baizik. Esnezalea goizean oso goiz etortzen zen, eta hari esnea ateratzeko, garaiz jaiki behar. Beraz, bazkalondoren, nahitaezkoa zen siesta. Baina txakurrak ez zuen inoiz alferrik zaunka egiten.

–Joxe, gaur ez dugu siesta egiteko bakerik. Eta gaitz-erdi gaueko loa galtzen ez badugu –bota zion atarian Don Juanek, urduri.

–Zer arraio dugu, ba? Hain larria al da kontua? –gure aita zenak sekula ez zion herriko apaizari berorika egiten.

–Gogoan al duzu duela urte batzuk, autopsia eta guzti, lurperatu zenuen gazte kanpotar hura? Ba, atera egin beharko duzu orain.

–Baina... zer diozu? Nork agindu du hori?

–Inork ez, Joxe, hori da okerrena; ez da legezko kontua, amaren nahia baizik –orduan baserriko ataritik urruntzeko keinua egin zion apaizak, etxe barrutik inork entzuterik nahi ez balu bezala.

–Hara, ama etorri zait beste senide batekin. Beren herriko apaizaren eskutitza ere ekarri dute. Bertan dioenez, ordudunik amak ez omen du bakerik eta onik izan bere buruarekin. Barru-barruraino sartua omen du semea ez dagoela behar den lekuan hobiratua, eta bere herrira eraman nahi du, han atsedean har dezan.

–Baina, Don Juan... beharrezko baimenik gabe, paperik gabe, ezin digute hori eskatu. Ez al dira konturatzan arriskuak?

–Bai, jakina. Horregatik egin dute bidaia osoa taxiz, eta konfiantza osokoa omen dute txoferra. Honakoan bezalaxe,

harakoan ere ez dute errepedean arazorik espero. Eta iritsita-kokan deituko dutela. Lasai egoteko, ez dagoela arriskurik-eta. Baina mesedez eta mesedez ari zaizkit...

–Ba, zuk hori badiozu, ni ez naiz ukatuko.

Gure amari azalpen txikiren bat eman, aitzurra, pala eta beste erremintaren bat hartu, eta han joan zen gure aita zena apaiz-arekin: lehenengo herri-gunera, eta gero, bi arrotzekin (aitak berehala ezagutu zuen beltz-beltz jantzitako ama zaharra) kanposantura.

Aita zenak ondo gogoan zuen non ehortzi zuen gazte arrotza, eta ama hura inguruan negar-zotinka zuela, hainbestetan egindako lanari ekin zion, baina alderantzizko helburuarekin. Aitzurraz eta palaz lurra kenduz joan zen, harik eta hondakinekin topo egin zuen arte. Zerua bere alde izan zuen gure aitak orduan: artean ba omen zen han galtzerdi bat-edo amak bere semearena zela ezagutzeko moduan. Amaren aiene eta hasperen ozenduen artean, hezur guztiak begirune handiz plastikotetan jaso eta bi maletatan hilerri ondoan zain zeukaten taxira eraman zituzten. Aitari zor zitzaion lansaria ordaindu, eta eskerrak eta eskerrak emanez, kilometro askoko itzulera-bideari ekin zioten hiru haiek (ala lau orain?) Ezkioetik Galiziaraino.

Urte batzuk lehenago...

Aita zenak esan zizkidalako kontatu dizkizuet aspaldi batean gure herrian gertaturikoak, eta gogoan dut nola bukatu zuen esanez: “Seme, seme! Zer den gero ama baten bihotz etsia!”. Oraindik oso gogoan ditudan bezala, 7-8 urte nituela, gure haurtzaro inuzentea astindu zuten egun haiek. Goi-tentsioko zutabe garaiak (umeon irudimenerako erraldoi burdinazkoak) margotzen ari zirela, langileren bat kablei itsatsita geratu, beste bat hari laguntzera joan eta bigarren hau, gazte galiziar bat, deskarga jasota, lurrera zerraldo erori zenekoa. Ezin ahaztu ere handik bi egunera, gertatuagatik traumatizata geunden herriko neska-mutikoak eguerdian eskolatik irten eta plazan entzun genituen garrasi lazarriak, ikaragarriak... seme bakarra galdua zuen eta urrutitik hiletara iritsi berria zen ama alargunaren saminezko deiarar hunkigarriak. “Seme, seme! Zer den gero ama baten bihotz etsia!”. Semearen hezurrak ondoan, izango ahal zuen behingoz ama haren bihotzak betiko atsedena!!!

Iñaki Mendiguren
Idazlea

Erlatibo aukeran: estilo kontu (I)

Erlatiboen inguruko abiapuntu berrikusiak edo

Berrikuspen-edo hauek ez ditugu hemen eztabaidatuko¹, baina esandakoen testuingurua osatuko dute.

1. Euskaraz ez da berez erlatiboa gutxiago erabiltzen erdaretan baino (gehiago ere bai batzuetan –Hidalgo, 2009–). Erlatibo gutxi erabiltzen da hizkera apalean, ahoz edo idatziz. Eta ezin ugariago ere bai, hizkera zaindu, konplexu eta aberatsean, ahoz eta idatziz.

a. Inongo hizkuntzatan **ez da inoiz ezinbesteko erlatiboa erabiltzea**, ezein ideia azaltzeko. Euskaraz ere ez. Ez itzulpen, ez sortzeko testuan (K. Biguri, *Senez* 15; ...).

b. Baina bestalde, inguruko hizkuntzetako **zeinahi erlatibo eman liteke euskaraz erlatibo ondo ulergarri ere**.

Euskarak erlatibo modu jokatu eta jokatugabe ugari garatu dituelako, eta hitzun-idazleen aukeran jarri, zehaztu nahi den izen ardatzaren **ezker**, edo **eskuin**, emateko: *-(e)n / zein... / bait- / ... // -tako / -(r)iko / -(r)ikako / partiz. ø / -(e)ko / -t(z)eko*.

Euskarak hainbat modu garatu dituelako, eta hitzun-idazlearen aukeran jarri, ‘hotzean’ zail diruditen erlatiboak ere (*zeinen, zeinekin, zeinentzat...*) modu arin eta ulergarri emateko.

2. Gurean, ez erlatibo mota baten erabilerak, ez honen posizioak ardatzaren ezker-eskuin, bihurtzen dute berez erlatiboa murriztaile edo ez-murriztaile (EGLU-V; Hidalgo, 2002b). Izen ardatza mugatzen eta murrizten dute ardatzaren esanahi ezaugarri propioek, testuinguruak, eta kasuko determinante eta osagarri guztiek. **Erlatibo mota guztiek** tarteko. Mitoa baino ez da, gurean, berezko erlatibo murriztaile eta ez-murriztaileena.

3. Gurean bai da **garrantzizkoa posizioa: erlatiboa ardatzaren aurrean edo ondorean doan**. Aurretik emana, erlatiboa beti da ondokoa interpretatzeko zedarri (murrizgarri). Ondoretik emana, ardatza da murrizgarri eta erlatiboa interpretatzeko zedarri. Areago, zenbat eta ezagunago eta mugatuago ardatza, orduan eta ez-murriztaileago zeinahi erlatibo.

4. Baina oro har, **erlatiboen luzerak agindu ohi du posizioa**:

a. Laburrak askoz maizago ardatzaren aurretik. Luzeak ondotik. Ulergarria da.

b. Ordea beti eman litezke laburrak ondoretik, edo luzeak aurretik –prozesatzen zailago–.

5. Eta **aukera hitzunarena da beti. Estilo kontua**. Kanpotiko derrigorrik gabea.

¹ Horretarako, eta autorearen erlatiboen ikuspegi orokorragorako, ik. Hidalgo, 2005b, *Hizpide* 59, eta hango erreferentziak. Gehiagotarako: inguma.com.

ERLATIBO KATEAK ETA ARDATZAREN ONDOKO ERLATIBO AUKERAK

Kateak, oraindik gure estropezu

Asko aurreratu dugu urteotan testu irakurgarriagoak (eta irakurle ohituagoak) sortzen. Erlatiboen kontuan ere. Baina oraindik maiz eragiten digute arazo erlatibo kateek. Bakoitza bere aldetik labur eta simple diren erlatiboak, prozesatzeko arazorik gabeak ardatzaren ezker emanak, arazo bihurtzen zaizkigu bi (edo gehiago) kateatzen ditugun orduko ardatzaren aurretik.

Esaldi erlatiboa airean geratzen da, ardatzarekin lotu ezinik, amaierako *-(e)n* sinestezin batetik zintzilik, aho-gorako irakurketan ezinezko intonazio etena eraginez: *Zaharra hiltzen ari den...* Ondoren ardatzaren ordeztar bigarren erlatiboa (edo okerragoan gehiago), aurrekoekin lotura ageri bakoa(k) emateko: *eta berria jaio ez den...* Gero bakarrik lotzeko guztiak ardatzarekin: *Zaharra hiltzen ari den eta berria jaio ez den garaiotan...*

Mezu hartzailearen garunak –munduko inongo hizkuntzatan– nekez mantendu ditzake lan-memorian aktibo ardatzaren aurreko erlatiboak 6, 8, 10 silabatik gora. Bat-bateko 7 digitutik gorako segidak ere ez bezala –egin proba–.

Arazoak ordea konponbide erraza izan ohi du gure tradizioan: **erlatibo kateak, osorik edo gehien batean, izen ardatzaren eskuin emanez** (nahi adina luze ere bai).

Nolako erlatiboak erabili dira euskaraz izen ardatzaren ondotik?

Erlatibo hautsiak

-(e)n erlatiboa arrunt hasita ardatzaren aurretik, artean osagarriak emanez ondotik ere. Normalak eta naturalak dira euskaraz, ahoz zein idatziz (Hidalgo, 2002a; EGLU-V). Ohi-koagoak zenbat eta sintagma konplexu edo luzeagoak eman ardatzaren ondoren (baina bestela ere):

Legea hausten duen pertsonak nahitara edo nahigabe...

Gaur bidali didazun mezuan eskaera eginez...

Axularrek zuzendu eutsan Karta Etxaus Arzopisbo jaunari (Añibarro)

Oso ohikoak ere, oinarrian *-(e)n* erlatiboen gainean-edo eraikitako egituretan:

Ithazurak eta kheak ateratzen duten bezala gizona bere etxetik (Axular)

Emen diraugun artean graziaz [ta gero zeruan gloriatz] (Larramendi)

Era guztietako erlatibo jokatuagabeetan ere, edo hauen eran eraikitako egituretan:

Juduei ezarri debekua inora mugitzeko [-takol-(r)ikol-(r)ikakol-(e)kol-t(z)eko]

Ez mellarik egiteko moduan aize otzak, eta ezta ere bustialdi batek (Med)

EGLU-Vak kontu handiz erabiltzea gomendatzen du esaldiok. Idazle-itzultzaile trebatuak ohi legez.

Izen ardatz determinatu-deklinatu gabearen ondoko *-(e)n...* erlatiboak

Gaurko gramatika eskuliburuetan ahaztuxeak (ez inoiz ahozko erabileran), oso ohiko dira alde eta aldi guztietako euskara guztietan (EGLU-V; Hidalgo 2004):

Mezu(,) *gaur bidali didazunean* (eskaera eginez)
Gizon *lo daudenak* *Mezaren erdian* (J.B. Agirre)

Halakoak dira bertso ezagun hauen hasierak ere:

Izar maite nubena / *aiñ biyotz guztitik* (Bilintx)
Ostegun joan danian (/ amabost Ernaniñ) (Xenpelar)

Maiz erabiltzen dira adjektibo (segida) baten ondoren, eta erakusleek mugatuta. Bestela ere bai. Oso baliagarriak dira erlatibo kateak natural sortzeko:

Gaur bidali didazun mezu luze(,) **erantzun dizudan horretan**
Kristok emanikako seinale agirian dauden batzuek (Larramendi)
Zuri enzuten deusudazan izen, neuk eztakidazanak (J.A. Mogel)

Oso arruntak erlatibo jokatugabeekin, partizipio soilez eta bestela:

Lekhu *plazerez bethean* (Axular)
Hitz *eztitasunez betherikakoak* (Xurio)
Komunio *gaizki egindakoen gañean* (Kardaberaz)
Mai *ederto gertaurokoan* (Kirikiño)

Izen ardatz determinatu-deklinatuaren ondoko *-(e)n...* erlatiboak

Erlatiboak ardatz ondoren emateko modu arruntena euskararen alde eta aldi guztietan, ahoz zein idatziz (EGLU-V; Hidalgo, 2002b). Kateak osatzeko ere. Oso maiz erabiliak osagai berrien aurkezpen gisa, *nor* kasuan emaniko ardatzaren ondoan eta honen kasu berean, singular edo pluralean:

[Badu Euskalerrriak] **ageri bat**(,) **izan dezakean zarrena**, *beti berarekin duena*, *izena eman diona*, *baña ongi ezagutzen ez duena* (Azkue)

[Lafont jauna da] **miriku hoberenatarik bat**, *oraino berrogei urte ez dituen gizon jakintsun eta prestu bat*, *ohorez ausarki duena*, *Frantzia eta Frantziaren gobernamentua*, **erran nahi baita** *Errepublikara, kartsuki maite dituen*, eta **eskaintzen darokuna**, *Baionan duen izaita ederra utzirik, guatera...* (J.B. Elizanburu)

Baina baita ardatza beste kasu batean emana ere, horren ugari ez izan arren. Halakoetan bi joera dira tradizioan, bakoitza bere ekarria duena:

- a. Edo, ardatzaren kasu bera errepikatuko du erlatibo aposatuak: bi sintagmak agerian kokatuko dira esaldi nagusiaren esanahi ildo nagusian:

Ezkondut batek, *emazte prestua duen batek*, har dezala eztheus bat... (Axular)

- b. Edo, erlatibo aposizioa nor kasu singular edo plural soilean emango da, ardatzaren kasua ahaztuz: erlatiboa ardatzari

lotzen zaio soilik, azalpen parentetiko gisa, ez esaldiaren esanahi ildo nagusiari. Ohikoagoak dira erlatiboa esaldi amaieran-edo emanda, baina ez bakarrik:

[Eginik] **Satanasen** *Bandera-pekora*, **ondu zana** *Infernuan!* (Añibarro)

[Eskerrik aunitz] **zure eskutitzagatik** *Txampain-erritik igorri didazuna* (Mirande)

Euskaltzaindiak (109. araua), komuntatu gabekook gomendatu gabe, onartzen du ahoz oso ohiko direla, eta erabateko atea irekitzen die idatzian ere “tarteki edo parentesi” gisa, “azalpen aske bezala” emanak, areago esaldi “hondarreen”-edo “erantsita”, baina “barnean ere... parentesi izaera agerian”.

Zein...(/non...) bait-/-(e)n erlatiboak

XX. mendean baztertuak, zorionez lasaiago darabiltzagu berriro. Oso baliagarriak ezohiko erlatiboak emateko (EGLU-V; Alberdi & Garcia) eta erlatibo kateak osatzeko (Hidalgo, 2003):

[Baliyaten dira] **esatera goazen modu batez zeñarekin ongi garbitzen diran**, eta **zeña ona dan jakitea...** (Med)

[Gaitzak ditu] **zenbait mudantza zeñai begiratu bear zaitoten**, eta **zeñak eskatzen duten erremedio bana** (Med)

Zein...(/non...) bait-/-(e)n erlatiboen-edo ahozko erabilera (*nola/zelan...*)

Maiz egotzi zaie *zein...* erlatiboei inportaziozko izaera erromantikoa. Baina ongi lekukotua dute ahozko erabilera arrunta euskaraz ere hainbat mailetan (Mitxelena...). Hemen ohartzea, hegoalde (eta haragoko) hala moduzko zenbait erabileraz, ahoz oraindik ere arruntak.

Euskara guztietan erabili da eta erabiltzen *nola/zelan* galdegilea zeinahi sintagmaren azalpen esaldian:

Ume horri esan dio, **NOLA/ZELAN ikusi dugu(n) (ba)** *orain...* [Ba, (ume) horri.]

Ume horri esan dio, **NOLA ikusi baitugu** *orain...* [Ip. / eki.]

Galdezaila’ artean tonikoz, ondore justuan aditz jokatu atzizki gabea duela, edo hegoaldean aditzari *-(e)n* menderagailua lotuz oraindik ere oso maiz, zati galderaren beheranzko intonazioz, askotan *ba* lokailuz aditz ondorean –atzerago inoiz–, eta aldika izen ardatza edo honen osagai oihartzun bat jasoaz berriro amaian. Ekialde osoan berriz, *bait-* aurrizkiz (*ba(da)* lokailu gabe).

Eta baldintza bertuetan erabiltzen da oraindik ere, hegoaldean bederen, kasuko *zein...* galdegilea (agian maizago *-(e)n* menderagailurik gabe egun, baina honekin ere):

Ume horri esan dio, **ZÈNEK agurtu gaitu(n) (ba)** *orain...* [(Ba, horri.)

Ume horri esan dio, **ZÈNEGATIK esan digute(n) (ba)** *joan dela...*

Hortik ez da pauso erdirik *zein...* erlatiboen erabilera jantzira. Baina bere horretan ere ongi erabilgarriak dira hegoaldeko ahozko jardunaren itxuraketan (antzerki, gidoi...).

Bittor Hidalgo
Euskara irakaslea

Euskal hirien ereduak bide onetik ote doaz?

Pasa den mendean euskal hiriak asko hazi ziren denbora gutxian, industrializazioaren eta migrazio-prozesuaren ondorioz. Hirigintza eredu horrek ondorio batzuk utzi ditu gaur egungo hirigintza erabakiak hartzerakoan. XXI. mendean, gero eta gehiago hitz egiten da ingurumena zaintzeko beharraz eta biztanleen zahartzeaz. Egoera horiei erantzun dieten hiriak nola eraiki, zein eredu jarraitu; horixe izan da eztabaidara ekarri nahi izan duguna.



**Rafael Farias,
Eusko Jaurlaritzaren
Lurzoru eta Hirigintza
zuzendaria:**

“Hiri zabala atzean utzi eta hiri konpaktuaren aldeko apustua egin nahi dugu”

Ze hirigintza eredu jarraitu behar da mende honetan?

Garapen iraunkorrekiko konpromisoa da Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak daraman politikaren ardatz nagusia. Gure lurraldean dugun lurzorua baliabide mugatua, urria da; etxebizitzak ahalik eta baldintza egokienetan eraikitzeko, zaila da lurzorua lortzen, kudeatzen eta prestatzen. Gerra ondorengo garapen urteek eskatuta, orain arte hazkunde politika mugagabea egin da, eta horrek gaur egungo eredu baldintzatu du; ekipamendu komunitario eta zerbitzu publikoak lortzeko bide-azpiegiturretan lurralde mugatuko eredu dugu. Banandutako eta berezitutako hirien antolaketa ereduak, funtzioen arabera bereziak (lo-hiria, industria-hiria, unibertsitate-hiria, osasun-hiria, administrazio-hiria, merkataritza-hiria, kirol-hiria...) eskaera berriak ekarri ditu, neurri handi batean, irisgarritasuna eta komunikazio beharrak asetzeko. Ondorioz, hirigintza-eredua berriz hausnartu behar da, eta hiri zehaztugabeak ordeztu.

Ze hutsegite egin dira hirigintza-planifikazioetan?

XIX. mendeko eta XX. mendearen bigarren erdiko industria garapenaren ondorioz, berehalako erantzun bat eman behar izan zitzaion etxebizitza beharri; landa eremuetatik hirira emigratu zuten herritar ugari. Kantitateari eman zitzaion lehentasuna, kalitateari baino. Bestalde, etxebizitza inbertsiorako ondasun gisa ikusi da, eta etxeak finantzatzeko erraztasun handiak izan dituzte herritarrek; horren ondorioz, azken urteetan etxebizitza parkea asko handitu da, teoriarik behar zena baino askoz gehiago. Aurrekari horiekin, hiriek gabezia handiak dituzte irisgarritasuna eta eraginkortasun energetikoari dagokionez. Egoeraren araberrako beharrezinean

berehalako erantzuna eman zaie; horri eman zaio lehentasuna eta ahaztu egin dira oinarrikoak ziren beste alderdi batzuk. Horixe izan da hirigintza planifikazioaren hutsegiterik handiena.

Hirigintza ereduak dagokionez, ze lehentasun ezarri ditu Eusko Jaurlaritzak datozen urteetarako?

Eusko Jaurlaritzarentzat jokabide estrategikoa eta lehentasunezkoa gaur egungo hirien esku-hartzea da: hiri zabala atzean utzi eta hiri konpaktuaren aldeko apustua egitea. Horretarako, jarduera hauek bultzatuko ditu:

- Hiriak zaharberritzeko ekintzak: eraldaketak egin behar dira, eta horretarako, eraikinak eta bertan dauden jarduerak ordezkatu behar dira. Zonifikazioarekin eta hiria bereiztearekin sortzen diren segregazio soziala eta erabileren sakanaketa saihestu behar ditu hirien zaharberritzeak.
- Bertan dauden eraikinen zaharberritzea: ezinbesteko helburua da CO₂aren isuria gutxitzeko konpromisoa hartzen bada, energiaren kontsumoa jaisteko ardurak bada, edota energia berriak gehiago erabiltzearen aldeko apustua egiten bada. Zaharberritzearen bitartez honako hau lortu nahi da: eraikinen erabilgarritasuna luzatu; etxebizitza berriaren eskaera gutxitu; gaur egungo eraikinak XXI. mendeko erosotasun eta kalitatera egokitu; lurzoruen kontsumoa eta zerbitzu publikoen beharra gutxitu; gizarte eta osasun arretarako beharrak gutxitu; infraetxeen baldintzak ezabatu; gutxieneko bizigarritasun baldintzak bete; jaiotze-tasa baxua eta bizi-itxaropen altua izan daitekeen egoera bat aurrekusi (etorkizunean etxebizitzaren beharrak eta eskariak asko aldatuko baitira).

Hirigintza prozesuetan eragile bakoitzak ze funtzio bete behar du?

Hirigintzaren ezaugarria funtzio publikoa izatea da; hor Administrazioak du antolatzeko eskumena eta bere esku dago prozesuaren erabateko kontrola. Horrek ez du esan nahi kudeaketa modernoko teknikak erabiliko ez direnik: esate baterako, kudeaketa delegatua bezalako mekanismoak, non enpresek parte hartzen duten hirigintza erakunde laguntzaileen bitartez. Hiriak eraiki, garatu eta berritu egiten da bertan bizi diren eragile eta herritarren jarduerarekin. Horretarako daude araudian jasotzen diren prozesu parte-hartzaileak.

Ze eragin izan du krisiak hirigintza planetan eta nola ari da administrazioa egoera horri aurre egiten?

Ekonomian eta finantzatan gertatu den krisiak eragin handia izan du batez ere etxebizitzaren sektorean; krisiak zuzenean eragin du hirigintzaren garapenean eta kudeaketa prozesuan. Horren ondorioz, Administrazioan hirigintzarako baliabide eta finantzabide berrien bila gabiltza. Hala, Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren oinarritzko erronketako bat elkarlan publiko-pribatua indartzea da; finantza krisia eta aurrekontu murriztua dagoen garai baterako arriskuak eta aukerak elkarbanatzeko ezinbesteko formulatzat jotzen da hori. Era horretako formulekin azken urteetan baino garrantzi handiagoa hartuko du eraginkortasunak.

**Oihane Ruiz,
Hiria Kolektiboko
arkitektoa:**

**“Euskal hirietan
jendea kalean
ibiltzea, hiri biziak
izatea, gustatuko
litzaidake”**



Orain arteko hirigintza ereduak egokiak izan dira? Ze ekarpen on eta txar egin dizkigute?

Gure belaunaldikook bi irudi ezagutu ditugu: bata, gure gurasoen garaiko auzoak eta herriak, apenas kotxerik ibiltzen zen garaia; bestea, azken hogeitaz urteotan eman den hirien eraldaketa. Gure gurasoek ezagutu zituzten hirietan umeez kalean jolasten zuten, plazak oso biziak ziren, bizilagunen mugimendua handia zen. Azken hogeitaz hamar urteetan eman den bilakaera horretan, gure ustez, Estatu Batuetako eredu hartu dugu; alegia, bertako zonifikazioa. Aurreko mendeetan eman ziren teoria modernoek eragina izan da; *zoninga* eta produkzio sakabanatuaren hiria: non bizi, non lan egin, non egin aisialdia, non izan natur gunea, etab. Dena banatuta ulertzen zen.

Merkataritza-gune ugari egin da azken urteetan hirien kanpoaldean. Egokia izan da eredu hori?

Eredu aldaketa horrek eragin handia izan du, eta gaur egungo herrietako eta auzoetako bizimodua baldintzatzen du. Apenas ikusten da denda txikirik herrietan eta auzoetan. Belaunaldi bakarrean aldatu da auzoa bizitzeko modua. Merkataritza-guneak irekitzeak ekonomikoki lagundu du; baina, ez da oso lagungarria izan eguneroko elkarbizitzan auzoetako kaleko giro-

arentzat eta ekonomia txikiko kolektibo ahul horrentzat. Antzeko gertatu da etxebizitzekin ere. Gure ustez etxe asko egin dira guztionak diren tokietan pentsatu gabe. Ez da pentsatu nola bermatuko den existitzen den hiriaren eta sortzen denaren arteko lotura, ez da pentsatu sortuko ziren identitate berrietan.

Hurrengo urteetan ze erabaki hartu beharko lirateke? Zeri eman beharko litzaiokie lehentasuna?

Ba, hirigintzan beste diskurtso batzuk integratu behar ditugu. Guk adibidez, Hiria Kolektiboan feminismoaren diskurtsoa sartu dugu. Orain arte egin den hirigintza sistema patriarkalean oinarritu da. Horixe da gure kritika. Gaur egun, lan egiteko eremuak edo espazio produktiboak definitzen direnean, enpleguari buruz hitz egiten ari da, ez da barneratzen lan ugalkorra: umeen autonomia, zaharren mendetasuna, etab. Gaurko Europan gero eta zahar gehiago dago eta lan produktiboa egiten jende gutxi. Beraz, egiten ditugun hiriek gizarte eredu horri erantzun behar diote; gizartearen ematen ari diren aldaketei era kontziente eta konplexu batean erantzun behar diete. Horrela, gertutasuneko hiri-sare bat osatu behar dugu: 300-500 metroan gizarte zerbitzuak eskala txiki edo ertainean ageri behar dira espazio publikoan: parkea, plazatxoak, osasun zentroa, haurtzaindegia eta ikastetxea egon behar dute. Eta horiek erraz iristeko moduan egon behar dute. Lantokiak eta unibertsitateak hiri barruan integratu behar dira.

Hirigintza prozesuetan eragile bakoitzak zer funtzio bete behar du?

Guk parte-hartzea oinarri duen eredu bat proposatzen dugu. Benetan demokrazian sinesten badugu, demokrazia parte-hartzailea izan behar da hurrengo pausoa. Jendea kudeaketan inplikatu behar da. Sortzen ari garen ereduak garai bakoitzean eta herri bakoitzean erabaki behar da. Baina agente guztiek ez daukate iritzia emateko ahalmen bera. Orduan, administrazioaren beharra da guztiei hitza ematea, baina era asimetriko batean. Orain, politikariek batez ere badakite parte hartzea beharrezkoa dela eta nik uste dut horretan ari garela, bidea egiten.

Etorkizuneko euskal hiria nolakoa imajinatzen duzu?

Niri gustatuko litzaidake Euskal Herriak bere bidea egitea. Gure herriak egitea, eta ez kanpotik etortzen diren ereduak jarraituta egitea. Euskal hirietan jendea kalean ibiltzea gustatuko litzaidake, umeez jolasteko eremu zabalak izatea eta ez eremu itxiak, jende nagusia kalean ikustea... hiri biziak izatea. Hirigintzaren xede publikoa berreskuratu behar dela uste dugu. Horretarako, administrazioaren eta gizarte edo gizarte eragilearen arteko elkarlana funtsezkoa da. Saltoki txikien kontu horri ere buelta eman beharko litzaioke, eta horretarako eredu aldaketa bat eman behar da.

Nerea Pikabea
Kazetaria

IVAPen argitalpen berria: “Administrazioa euskaraz” aldizkaria. Gramatika artikuluen bilduma eta ariketak

Administrazioa euskaraz aldizkariak 1993ko uztailan ikusi zuen argia. Ordutik hona, hiru hilerik behin, harpidedunen etxeko atariraino iritsi gara mota askotako artikulua eskaintzeko; gehienak administrazioaren jardunarekin, euskararekin edo biekin lotuak.


Hizpide dugun liburu hau aldizkariaren bizitzaren 17 urte horietan argitaratutako artikulua-bilduma da. Ez ditugu artikulua guztiak jaso, hori ezinezkoa bailitzateke. Gure asmoa xumeagoa eta, aldi berean, praktikoagoa izan da: gramatikari eta oro har hizkuntzari buruzko artikulua bildu ditugu. Bildu ez ezik, osatu ere egin ditugu ariketekin eta bestelako materialarekin.

Argitalpen hau da, lehenik eta behin, urte askoan, euskal munduaren luma garrantzitsu batzuek euskararen inguruan zehaztu eta landutako hainbat gai zehatzen bilduma, kronologikoki jasoa eta atondua. Hiru atal ditu: Gramatika, Hiztegi Batua eta Zalantza-dantza.

Lehenengo kapituluan, gramatika gaitzat hartuta argitaratu diren artikulua sorta jaso dugu, guztira 74 artikulua. Baina liburuaren asmoa praktikoa izatea denez –praktikoa eta euskara landu nahi dutenentzat erabilgarria–, artikulua bakoitzari zenbait ariketa erantsi dizkiogu, lehendik aldizkariarekin argitaratuta zeuden batzuk, guk gehitutakoak beste batzuk. Hauxe da, zalantzarik gabe, liburu honen atalik mamitsuena eta mardulena.

Artikuluok kronologikoki daude antolatuta, zaharretik berrienera, 1993tik 2009ra arte; eta arestian aurreratu bezala, euskal kulturaren eta euskararen munduaren punta-puntako lumek jarri diete izenpea. Bestalde, atal honek badu beste bereizgarri bat: laburpenak. Artikulu bakoitzari laburpen bat gehitu diogu, testu osoa irakurri gabe, edukiez jabetu ahal izateko oso denbora laburrean. Hortaz, edo artikulua zurruegia iruditzen zaizulako, edo luzeegia edo ulertzeko zaila... bada, laburpena irakurrita zuk zeuk erabaki ahal izango duzu zer egin: aurrera segi, bertan pausatu... Salbuespen batzuk badaude; izan ere, artikulua bakan batzuk ez ditugu laburtu –enumerazio asko daudelako edo zerrendatze luzeak dituztelako...–; baina esan bezala, salbuespenak dira.

Bigarren atala Zalantza-dantzari eskaini diogu. Izen horrekin 2000. urtean euskararen inguruan ohikoak ziren –eta diren– hainbat zalantza argitzeko aholku eta iradokizun sorta bildu



genuen. Bada, argitalpen honetan berriro jaso eta eguneratu ditugu azalpen horiek; gainera, ariketekin osatu ditugu gorago aipatu dugun praktiktasuna helburu.

Hiztegi Batua dugu liburuaren hirugarren eta azken atala, Euskaltzaindiak zuzendu eta gidatzen duen Hiztegi Batua, hain zuzen. Bertan ez dago azalpen teorikorik, dena da praktikoa; ariketek osatzen dute hirugarren kapitulu hau, beraz. Azken bi atal horien hasieran, bakoitzaren nondik norakoak azaltzen dituen sarrera bana dago.

Liburuaren amaieran, ariketa guztien soluzioak aurkituko ditu irakurleak, berak zuzendu eta ebaluatu dezan egindako lana.

Argitalpen hau osatzerakoan, gogoan izan ditugu, bereziki, euskaltegi, eskola eta ikastoletan sakabanatuta euskara ikasten eta lantzen dabilzan ikasleak. Horiexek eta euskara sakondu, hobetu... nahi duten hiztun, irakasle eta herri-langileak ere bai. Hortik azalpen teorikoak, hortik adibide praktikoa eta ariketak.

Administrazioa euskaraz aldizkariak argitaratzen dituen gramatika artikulua edota ariketak interesgarri eta erabilgarri suertatu bazaizkizu, edota hori gabe zure gramatika ezagupenak eguneratu nahi badituzu, ziur gaude argitalpen berri hau gogoko eta erabilgarri izango duzula.

Administrazio Hizkeraren Atala
Xabier Amatria, Urtzi Barrenetxea, Irene Fernández,
Amia Ugartemendia, Izaskun Zuntzunegi

Euskaltegirako astirik ez

07:00 ILUNTZEAN, etxerakoan Diatik pasatu behar naiz, esnea falta da, eta arrautzak ere bai. Gosaltzeko adina ozta-ozta, baina umeentzako lain badago.

–Eduardo, Nancy!! Jaiki behingoz...!

Anbulatorioan bederatziaik laurden gutxitan daukat txanda hartuta, eta ikusten ari naiz berandutu egingo zaidala.

–Egunon *cachito*! Ondo egin duzu lo? Hona amatxorengana!! Zein da gure etxeko printzesa?

–Zelako logura, ama...

–Eta zure neba jaiki da? Eduardo, mesedez ba, berandu helduko zarete eskolara eta...

08:15 ZORTE pixkatxo batekin gaur ez dugu Lourdes andreakin topo egingo. Benetan da emakume atsegina, gure ama ekartzen dit gogora. Eta zein polito mintzatzen diren euskaraz gure umeak berarekin! Beti ari zait esaten nik ere euskara ikasi behar dudala, eta arrazoia du, baina oraingoan, nahita ere, ezin. A zelako estutasuna pasatu nuen herenegun! Hilabete honetan ere alokairuko dirua ezin batuta nabil, eta ez nuen jakin zelan azaldu. Hor dator eskolako autobusa:

–Gero arte, maiteak! Askok bazkaldu eta egin jaramon andereñoari. Gogoratu, arratsaldean, irteterakoan, Adelaida izango duzue zain. Tori karpeta, ahaztu gabe!

09:20 EZTUL honek akabatuko nau. Astinaldi bakoitzean pixa ere ateratzen zait. Ea gaur zein mediku tokatzen zaidan. Aurrekoa atsegina izan zen benetan, baina eman zidan xarabeak ez dit mesede handirik egin: lehen bestean topatzen dut neure burua.

–Jeniffer Rodriguez?!

–Bai, ni naiz.

–Sar zaitez.

–Egunon, jauna.

10:00 ANALISIAK egiteko agindu dit medikuak, eta etzi, goizeko zortzietarako baraurik etortzeko. Ez dakit nola konponduko naizen hain goiz anbulatorioan egoteko. Haurrak ezin ditut bakarrik utzi, eta hain goiz nirekin eroateak ere pena ematen dit. Ai nire *mamita Rosa* hemen balego! Baina ez, hobe honela; nire berri jakingo balu, negarrez hasi eta urtu egingo litzateke eta. Beno, beste aukera bat Gladysi gurean lo egiteko eskatzea da. Bera eta biok lanetik bueltatzerakoan, gurean lo egin dezan eskatuko diot. Ez dut uste axolako zaionik. Gainera sarri askotan galdeetzen dit hurrez: ea zer moduz moldatzen ari diren euskararekin, lagun eta ohitura berriekin... Gladys kolonbiarra da eta bere hiru seme-alabak Kolonbian ditu, baina diru pixka bat batu bezain pronto ekarri nahi dituela esan dit.

11:00 HONEZKERO Adelaida eta RosMari zain izango ditut. Atzo esan nien gaur beranduxeago helduko nintzela, baina hura dela eta bestea dela, pentsa baino gehiago luzatu da anbulatorioko bisita.

–Egun on, neskak.

–Kaixo, Jeni. Bai berandu, ez?

–Barkatuko didazue, baina anbulatorioan berandutu egin zait.

11:30 ZORNOTZARA doan autobusa orduro pasatzen da, laurden gutxitan, eta egunero hartzen dugu hirurok. Batzuetan Gladys ere gurekin etortzen da, baina gehienetan gu baino beranduago ailegatzen da. Goizetan izarak ezin astindurik ibiltzen dela esaten digu, eta gainera, jakin badakit, gauetan berandu arte aritzen dela lanean.

11:50 –ATZO Sergiok andereñoaren oharra ekarri zuen etxera. Nirekin hitz egin nahi duela eta hitzordua emateko deitzeko zioen.

–Lasai Adelaida, ziur asko zure *mozoloa* polito dabilela esango dizu eta.

–Ez dakit ba; azken aldian, Sergiori euskaraz hitz egitea asko kostatzen zitzaiola esan zidan.

–Nancy eta Eduardori ere hasieran gauza bera gertatu zitzaien.

–Eta zer egin zenuen ba?

–Andereñoak esan zidan nik ere euskara ikasteko ahaleginak eginez gero, umeak asko animatuko lirartekeela. Gainera, euskara pixkatxo bat ikasiko banu, etxerako lanetan esku bat botatzeko aukera ere izan nezakeela.

–Heldu gara neskak.

12:20 AUTOBUSAK uzten gaituen tokitik autopista azpiko gure txokora egin behar dugun zati hau arriskutsua da benetan. Autoak ikaragarritzko abiaduran pasatzen dira, eta errepide honek bazterbiderik ez duenez, arreta handiz ibili beharra dago.

–Aizu, Jeni, eta lehengo kontuarekin jarraituz, zer egin zenuen ba euskara dela eta?

–Euskaltegian hasi nintzen.

–Benetan? Eta zer moduz?

–Oso gustura, benetan.

–Eta zein ordutegi izaten dute ba?

–Ordutegi zabala daukate: eguerdi ostean hasi eta iluntzera arte. Garai hartan *Gran Viako* bulegoak garbitzen egiten nuen lan, eta iluntzean, umei afaria eman eta han joaten nintzen nire karpeta eta guzti.

12:45 MINIGONA, galtzerdiak, takoidun zapatak... Jertse honek eskote ederra du, bularralde dotorea egiten dit.

–Zer ekarri duzue bazkaltzeko, neskak?

–Nik gaur fruta pixka bat.

–Nik atzo gaueko patatadun tortilla zatia eta sagar bi.

–Adelaida, neska, margotu hobeto ezpain horiek.

–Hara Jeni, horra hor zure BMW beltza...

–Kaixo, *mi amor*! Pozten nau zu ikusteak.

–Goazen polita, badakizu hemendik azkar joan nahi izaten dudala.

Iluntzean, etxerakoan Diatik pasatu behar naiz, esnea falta da, eta arrautzak ere bai. Lan honekin, euskaltegirako astirik ez...

Miren Ione Solabarrieta
Idazle Eskolako ikaslea

Elikaduraren inguruko mitoak eta egiak

Gaur egungo gizartean gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio elikadurari. Gero eta produktu gehiago ditu aukeran kontsumitzaileak. Baina zenbat mito dago elikaduraren inguruan? Elikagai-premiak adinaren edo lanbidearen arabera desberdinak ote dira? Zer ekarpen egiten diote gure organismoari elikagai funtzionalak? Etxetik kanpo lan egitea eta etxeko elikadura osasuntsua izatea bateragarriak dira? Galdera horiek guztiak egin dizkiegu elikadurarekin zerikusia duten hainbat adituri.



Joseba Bidaurrezaga, mediku naturista:

“Kultur arazo bat dugu elikadurarekin”

Elikadurak ze garrantzia du pertsonen osasunean?

Gure proiektzioa osasuna da. Osasuna edukitzeko gorputza garbitu behar dugu. Gorputza garbi edukitzeko ez dugu kutsatu behar. Ez kutsatzeko barazkijale dieta egin behar da. Elikadura lan bat da, digestioa. Digestioan lan fisiko bat dago, sabela edo urdaila lanean ari da. Elikadura da gorputzaren erregaia. Elikadura konplexua egiten badugu, okela jaten badugu, gorputzari lan handia ematen ari gara, eta azkenean, digestioa luzea izango da. Fruituak eta barazkiak jenez gero, berriz, berdin-berdin jasotzen ditugu behar ditugun kaloriak, baina sabelari lan gutxiago eginazten diogu.

Gure gizartean oso sustraituta daude, ordea, okela eta arraina.

Gure herriak nolabaiteko konplexua du: dirudunak okela edo txuleta edo arraina jaten du. Pobreak, berriz, porru-patatak. Psikologikoki gure herrian oso sartuta daukagu ideia hori. daukagun arazo kulturala da hori, eta oso larria da. Orain, modan daude elikadura dietetikoak. Hori kontsumismo hutsa da. Bitaminak modu naturalean har ditzakegu. Gure arbasoek taloak jaten zituzten eta guk gutxietsi egiten ditugu. Kultura arazo bat dugu. Orain, hormonekin kutsatutako haragia jaten dugu, eta horrek pertsonaren hormona-sistema aldatu du. Etorkizunerako, horren inguruan hausnartu beharra dugu. Haragia kendu betiko eta esnea eta esnekiak indartu. Elikadura barazkijalea digeritzeko erraza da, kaloriak ematen ditu eta ez du kalterik egiten.

Heziketa baten beharra dugu, beraz?

Herri baten elikadura aldatzeko 300 edo 400 urte behar dira. Umeei erakutsi egin behar zaie barazkiak jaten: entsalada ez badute jaten, ba gazpatxo bat egin. Trukuak erabili behar dira. Koloreekin jolas dezakezu. Adibidez, Athleticen dieta, zuria eta gorria: tomatea eta esparragoa; zerbadi haragibolak egin ditzakezu. Jakin egin behar da nola egin. Gorpu-

tzak osasuntsu egoteko betebeharra du eta guk gizarteari eredu emateko betebeharra dugu. Norberak izan behar du bere osasunaren jabe. Gure familian denok barazkijaleak gara.

Zein dira ezinbestekoak diren elikagaiak?

Ura, gatz mineralak, bitaminak, karbono hidrato sinpleak, koipe sinpleak, etab.

Nola egokitu daiteke elikadura osasungarria sukaldetan aritzeko denborarik ez duen norbaitentzat?

Ba, fruta jenez. Fruta-mazedonia. Jendeari erakutsi egin behar zaio jaten. Urtean jaki bat jaten erakusten badiozu pertsona bati, hori lortzen baduzu, ikaragarritako iraultza egingo dugu.



Alejandro Martinez Berriochoa, EROSKI CONSUMEReko zuzendaria:

“Familiaren elikadura prestatzeaz arduratuko denik ez egotea ohikoa da”

Adinaren edo egoeraren arabera, elikadurak desberdina izan behar du?

Adinaren arabera behar jakin batzuk daude. Kasu batzuetan energia gehiago ematen duen zerbait edo elikagai zehatz bat behar izaten da: kaltzioa eta burdina haurtzaroan; azido folikoa, iodoa eta burdina haurdunaldian; etab. Hala ere, edozein adinetan, elikadurari dagokionez, gutxieneko batzuk hartu behar dira; eta hori Elikadura Osasungarriaren Piramidearen gomendioak jarraitzearekin lortuko da: zerealak egunero, integralak badira eta gutxi prozesatuta badaude hobeto (arroz, ogi integrala, kus-kus, pasta); frutak eta barazki freskoak egunero; lekaleak astero; haragia baino hobeto arraina jatea, eta oliba-olio on bat ontzeko eta platerak prestatzeko.

Artikulu honetan azaltzen da taula bat pertsona heldu osasuntsu batentzako gomendatutako ratio edo anoekin:

<http://revista.consumer.es/web/es/20090201/alimentacion/74523.php>

Nola egokitu daiteke elikadura osasungarria sukaldean aritzeko denborarik ez duen pertsona batentzat?

Ez da zaila janari azkarra, erraza eta osasungarria prestatzea. Edozein momentutan janaria prest edukitzeko trikimailuak erabil daitezke: janari asko prestatu eta anoatan gorde hozkailuan; soberan geratu den janariarekin errezeta azkarrak prestatu; etab.

EROSKI CONSUMEReko dietista-nutrizionista taldea errealtate horretaz jabetuta dago, eta horregatik, 2007az geroztik urte osorako menu errazak eskaintzen ditu atari tematiko batean. Gosaltzeko, bazkaltzeko, askaltzeko eta afaltzeko proposamenak dira.

<http://www.consumer.es/alimentacion/menus/faciles/>

Eroski sortu zenetik, aldaketa asko egon al da elikadura ohituretan?

Eboluzio soziologiko bat egon da gure gizartean. Familien osaketa aldatu egin da eta emakume lan munduan sartu da. Gaur egun, familiak kide gutxiagokoak dira, eta sarritan familiaren elikadura prestatzeaz arduratuko denik ez egotea ohikoa da. Horren ondorioz, kantitate gutxiagoko jakiz osatutako ontziek eta maila desberdinetan prestatutako elikagaiek (gordinik, izoztuta, aurrez prestatuta, fresko eta garbituta, erdi prestatuta...) gora egin dute azken urteetan. Orain beste aldaketa bat antzematen ari gara: elikagai funtzionalak deiturikoak gero eta gehiago kontsumitzen dira. Kontsumitzaileen osasuna hobetzea dute helburu elikagai horiek, errezetan eginiko hobekuntza batzuei esker.



Sonia Gaztambide, Gurutzetako Ospitaleko Endokrinologia Zerbitzuko burua eta EHUko Medikuntza Fakultateko irakasle titularra:

“Garrantzitsuena era askotako jakiak jatea da”

Elikadura txarraren eraginez sortutako ze eratako arazoak antzeman dituzue ospitalean?

Oro har, elikadura txarrak gure gizartean obesitatea sortu du. Kopuru bat ematearren, herritarren %25ak gehiegizko pisua edota obesitatea dauka. Kopuru handia da hori.

Noiz esan daiteke pertsona batek obesitatea duela?

Gorputz-masaren indizea 30 Kg/m² baino gehiago denean. Zifra hau honela ateratzen da: masa kilogramotan zati altuera ber bi metroan. Formula erabilerraza da.

Gaizki elikatzearen jatorria familian al dago?

Hor hasten da. Txikitatik hezi egin behar dira seme-alabak. Gurasoak lanean aritu eta etxera nekatuta iritsi badira, behar bada ez dute umeein borrokan aritzeko gogo handirik izango eta



errazenera joko dute. Eragozpenik jarriko ez dieten jakiak emango dizkiete umeei. Frutak eta entsaladak edo barazkiak janaraztea gehiago kostatzen da.

Emakumea lan munduan sartu izanaren ondorioz etxeko elikadurari kontu gutxiago egiten zaiola esan daiteke?

Gauza berrien –teknologia berrien, sukalde modernoen– liluraren atzaparretan erori gara; teknologia berri horiek gure erosotasuna hobetzeko helburua zuten. Baina denborak erakutsi digu beharbada ez direla hain onak izan. Jendea lasaitu egin da. Hori konpondu beharra dago, eta horren kontzientzia hartu behar dugu.

Orduan, etxetik kanpo lan egitea eta ondo elikatzea bateragarriak dira?

Nik uste dut baietz. Ez daukat zalantzarik. Trikimailuak erabiltzean dago gakoa: janari asko prestatu eta anoaka izozkailuan sartu...


Nola jakin dezakegu ondo elikatzen ari garen?

Era askotako jakiak jaten badituzu eta pisu egokia baduzu, nahiz eta gora behera txiki batzuk izan, ondo elikatzen zarela eta nutrizio egoera normal bat duzula esan daiteke. Horrek esan nahi du esnea eta esnekiak hartu behar direla, fruta eta barazkiak jan behar direla, eta haragia eta arraina jan behar direla; hori bai, azken horiek ohi baino gutxiago jatea komeni da. Garrantzitsuena era askotako jakiak jatea da. Denetik jan behar da.

Ze iritzi duzu azken aldian sarri samar entzuten diren elikagai funtzionalei buruz?

Ez dago ezer frogatuta, ez baita ondo diseinatutako (planifikatutako) zientzia ikerketarik egin. Ez dago frogatuta horiek osasuna hobetzen duten ala ez. Egia da elikagai horietako batzuk kolesterol kopurua gutxitu dezaketela. 400 mg/dl-ko kolesterola baduzu, elikagai horiekin 20-40 mg/dl gutxitzea lortuko duzu. Horrek ez du ezertarako balio, ez baita nahikoa eta edozein kasutan botikak hartzera behartzen baitzaitu. Publizitate hori ez da batere zehatza, eta beraz, engainagarria da.

Nerea Pikabea
Kazetaria



Estudios Jurídicos sobre Fiscalidad Lingüística: Incentivos Fiscales como Instrumento de Política Lingüística
 Urrutia Libarona, Iñigo ...[et al.]
 IVAP, 2010
 343 or.

2008ko otsailean Euskararen Aholku Batzordearen Lege Garapenerako Batzorde-atala sortu zenetik, batzordeko kideek hauxe ikusi zuten garbi: lan ildo nagusietako bat izango zen hizkuntza politikarako tresna izan daitekeen balizko pizgarri fiskalen sistema aztertzea.

Lan hau egiteko, batzordeak gai honetan aditu diren aholkularien laguntza izan du. Batetik, Deustuko Unibertsitateko Finantza eta Zuzenbideko irakasle den Alberto Atxabal Rada doktorearena eta Iñigo Urrutia Libaronarena. Bestetik, Eusko Jaurilaritzaren Lehendakariatzaordetzaren zerbitzu juridikoen iritzia ere jaso dute.

Lanak hiru atal nagusi ditu:

1. Hizkuntza politikaren baitan balizko zerga-neurriak ezartzeko lege-eta eskumen-esparrua. Lehenengo atal honetan Joseba Alcalde Amutxategi, Zelai Nikolas Ezkurdia eta Begoña Perez De Eulate Gonzalezen iritziak jasotzen dira.
2. Lehia askea, estatu laguntzen debekua eta hizkuntza fiskalitatea. Iñigo Urrutia Libaronak landu du.
3. Euskal zerga-pizgarriak hizkuntza politikaren baitan. Alberto Atxabal Rada.




La Administración Electrónica y la protección de datos: Encuentro nacional sobre transparencia en la gestión universitaria
 Bello, Santiago A; Caro, Ana I.
 Universidad de Burgos, 2009
 349 or.

Informazio eta komunikazio teknologien (IKT) garapenak eta aurrerapenak Administrazioaren eta herritarren arteko harreman bide berriak eskaini dizkigu. Era berean, orain arte jorratu gabeko hainbat alderdiren inguruko kezka ere sortu dizkigu, esaterako, datuen segurtasunaren ingurukoak, marko juridiko eta legislatibo berri baten beharra...

Administrazio publikoek garbi ikusi dute garapen horrek berebiziko garrantzia eta eragina duela eguneroko kudeaketan, protokoloak eraikitzean eta lan sistemak txertatzeko garaian, eta ondorioz, eztabaida eta balorazio guneak sortzeko lan eskerga egiten ari dira. Lan horren erakusle izan daiteke 2008ko otsailean, Burgoseko unibertsitateak, bere herri administrazioaren eta AEDUNen (Asociación para el Estudio del Derecho Universitario) laguntzaz, Administrazio elektronikoa eta datu babesaren inguruko nazio mailako topaketak antolatu izana.

Argitalpen honetan jasotzen dira topaketa horietako gogoeta, ikuspegi eta praktikak. Guztiak helburu bakar batekin: irakurleak egungo Administrazio elektronikoaren eta datu babesaren inguruko ikuspegi globala jasotzea.




Manual d'arxivística i gestió documental
 Associació d'Arxivers de Catalunya
 Barcelona, 2009
 543 or.

Liburu hau Associació D'Arxivers de Catalunyak argitaratu du. Emilia Capellek eta Marion Corominasek Kataluniako 25 profesional ezagunen ekarpena koordinatu dute.

Eskuliburuaren helburua eremu honetan lanean dabiltzanen edo ibiliko diren profesionalen ikuspegi kritikoa bultzatzea da; hau da, egunerokotasunean praktika eta bitarteko egoiak erabiltzen dituztenak hausnartzera bultzatu nahi ditu.

Liburua 11 kapituluk osatzen dute. Ziur aski jende gehienak artxiboak dokumentu zahar eta ilunekin lotzen ditu. Dokumentu horiek oinarri hartuta, eskuliburu hau hainbat alderdi eta praktika argitzen saiatzen da. Oinarri teorikoak ezartzen ditu, planifikazio esperientziak eskaintzen ditu, dokumentu horiek nola tratatu behar diren eta gerora bilaketa erraza egiteko eta kulturaren zerbitzura jartzeko nola osatu behar diren azaltzen saiatzen da, eta azkenik, dokumentu elektronikoaren tramitazioa eta eraketa egiteko argibideak eskaintzen ditu.

Dokumentuaren data kontuan hartu gabe trataera integratua emateko xedea legalki jada lortua zegoen (10/2001 Legea, uztailaren 13koa). Hala ere, eskuliburu honekin metodologია, lan teknika eta teoria bidez hori guztia gorpuztea lortu da. Eskuliburu honen balio erantsia, hain zuzen ere, ikuspegi integral horretan eta 25 egile horien ekarpenean eta eskarmentuan datza.



Diccionario de conectores y operadores del Español
 Fuentes, Catalina
 Arco, 2009
 414 or.

Hiztegi hau Catalina Fuentes Rodríguez hizkuntzalariaren ikerketa lan eskergaren emaitza da. Egile honek egitasmo hau aurrera atera ahal izateko, Espainiako Zientzia eta Teknologia Ministerioaren laguntza izan du.

Egileak, proiektu honen bidez, diskurtsoa harilkatzeko erabiltzen diren lokailu, juntagailu, moduzko partikula eta beste hainbat elementuen deskribapenean eta analisisan sakondu nahi izan du, eta bide batez, ordura arteko azterketak bildu eta sistematizatu.

Egia da, era honetako beste hainbat argitalpen aurki daitezkeela. Hala ere, argitalpen honen alderdirik aipagarriena zera da: azterketa honek ez du soilik maila deskriptiboa lantzen, baizik eta erabilerari begirako proposamenak eskaintzen ditu, hau da, hizkuntzaren ikuspegi pragmatiko baten baitan kokatu behar dugu. Beraz, tresna erabilgarria izan nahi du ahozko zein idatzizko diskurtsoa eraiki nahi duen ororentzat.



Aitorpena

Badakit ez dituzula *reality show*ak maite. Hori dela eta, susmatzen dut ez didazula sekula barkatuko zure izena honela haizatu izana, aldizkari batean, baina zerbaitek hozka egiten dit erraieran, aspaldi esan behar nizun zerbaitek, eta zerbait hori mundu osoari jakinarazteko beharra sentitzen dut, nire barkagarri barik, nire penen aringarri izango delakoan. Aitorpena bihotz-bihotzetik aterako zait gainera, zinez-zinezkoa izango baita; ez da errenta-aitorpena bezalakoa izango, ahal delarik, hamaika amarru eta trikimailu baliatuz ontzen dena; eta nik hori ondotxo dakit, Ogasuneko ikuskatzailea izanda.

Ainhoa, joan den urtean oparitu nizun eraztuna da nire sufrikario guztien iturria. Azken egunotan ezin izan dut begirik bildu, eraztun horren inguruan gertatutakoak loa galarazten didalako. Eraztuna Marokotik ekarri nizun, bai, baina ez nuen inon erosi. Aitortzen dizut Marrakech-eko neskato perxtenta batena zela zuri gerora erregalatu nizun eraztun hura. Doan atera zitzaidan hura opari bihurtu nuen, bai. Aitortzen dut. Toubkal-erantz abiatzeko bezperan gertatu zen. Afaldu ondoren osteratxoa egitera joan eta diskoteka moduko batean sartu ginen. Han dozenaka neska zeuden, zein baino zein lirainagoa; denak bertakoak ziren, baina gure gisara zeuden jantzita, Mendebaldekoen gisara. Dударik gabe, han harrera hobe zuten ezpainetakoek eta Wonderbra bularretakoek burkek baino. Lau bat whisky besterik ez nuen edan, zin dagizut. Nahikoa eta sobera, nonbait, burua eta gogoa guztiz lausotzeko.

Handik aurrerakoaren irudi isolatu batzuk baino ezin ditut gogora ekarri: arabiar emakume bat eta biok elkarrekin dantzatan, estu-estu, whisky botila gu bion arteko zedarri bakarra zela; laino artean-edo gogoratzen dut nola kendu nion ahoarekin eraztuna atzamar batetik eta nola irentsi nuen whiskyz lagunduta (mozkorraldietan, horrelako gauzak sarritan egiten dira); beste eldarnio-edo batean, lehengo emakumea agertzen da nirekin txortan bixi-bixi. Biharamunean izugarritzko ajearekin esnatu nintzen. Ordurako han ez zen geratzen emakume exotiko haren batere aztarrenik. Nire diru-zorroa lurrean zegoen; sosik bat ere ez barruan; emakume hark diru guztia lapurtua zidan. Ordu batzuk geroago, komun-zulotik eskuratutako nuen emakume harekin oraindik lotzen nauen gauza bakarra: eraztuna.

Sosik gabe nengoen, beraz. Eta ni etxera beti zerbait ekartzeko naizenez, zuri emakume haren eraztuna oparitzea bururatu zitzaidan. Gaizki egina, badakit. Nire jokabide makurraren erakusgarria daramazu zure atzamar erakuslean, bai. Ez dut gaizki hartuko saldu edo erre kara botatzen baduzu; ez naiz harrutuko, orobat, dibortzioa eskatzen baduzu. Baina ez eskatu nire ezkontza-eraztuna itzultzeko, Marrakecheko neskarekin izandako gau zoroan galdu nuen eta.

Inaxio Lopez de Arana

Idazlegai

Tuenti, Facebook... gurasoak eta sare sozialak

Zaila da oso, sozializazio teknologikoaren diskurtsoa zedarritzea; etxeko ordenagailua toki komun batean jartzea komeni dela esaten ari garen bitartean, ikasturtea hasterako gazte gehienek sakelako aparatuekin uneoro konektatuak egoteko aukera izango dutelako.

Gure seme-alabak elkarreragile digitalak dira, 2.0 belaunaldikoak. Mundu digitaleko partaide aktiboak dira eta, taldean zein banaka, inplikatuak daude. Sare sozialetan proiektu komun eta globalizatuen parte dira, eta gainera, elkarrizketak, ezagupenak, bizipenak eta baliabideak ere partekatzen dituzte. Gu lehen mailako generazio digitalaren (1.0) belaunaldikoak gara eta gure erabilpena pasiboa eta banakakoa izan da; zaila da beraz, gure ikuspegitik hau guztia ulertzea eta barneratzea.

Ezin ditugu gutxiagotu edo arbuaiatu hedabideetan hain sarri aipatzen diren sare sozial berrien erabilera oker edota gehiegikeriaren arrisku argiak; baina, era berean, ihes egin behar dugu gehiegizko zigor zein neurritz gaineko gorapamenetik. Egokiago iruditzen zaigu, alternatiba hezigarri eta prebentibo legez, gure seme-alaben hezkuntzaz dagoeneko dakizkigun edo behintzat hobeto ezagutzen ditugun oinarritzko gaiak aplikatzea teknologia berrien mundura eta, zehazki, sare sozialen erabilpenera.

Aintzat hartu gure guraso funtzioek garmatzatela, besteak beste, beraien oinarritzko beharrak (batez ere emozional eta afektiboak) asetzera, eurak babestera eta alderdi orotan egoki garatzera; era berean, garatu egiten ditugu ulertzeko, erabakitze eta irtenbidea aurkitzeko gaitasunak: bai eguneroko egoera zein arazoetarako, bai gatazketatik eratorritakoetarako. Teknologia berrien eguneroko erabilpenari dagokionez, sare sozialak deritzogun mundu hain berezi honetarako (non gure seme-alabak bertan aurkitzen diren eta, gainera, bertan gizarteratzen diren) jokaera ereduak sustatu behar ditugu; hain zuzen ere, une eta egoera bakoitzean egokiena dena bereizteko garatu ditugun gaitasun eta abilezi berberak aplikatuz transmititzen diren jokaera ereduak.

Gure seme-alabentzat ingurune digitala ez da soilik denborapasa, ezta soilik teknologien kontu bat ere. Ingurune digitala beren egunerokotasunean murgildua dago: beren komunikatzeko, harremanak izateko, egiteko eta sentitzeko moduan. Ondo erabiltzen ikasten laguntzeak teknologiak, sare sozialak... ez mespretxatzea eta hauengatik interesa azaltzea eskatzen digu gurasooi; ingurune horretan izandako lehen bizipenengatik eta hauetaz egindako erabilpenengatik interesa agertzea.

Ez dugu ahaztu behar beraientzat erreferentzia garena, jokarrera eredu, eta hori soilik autoritatetik transmiti daitekeela (lidergo partehartzaile eta kooperatibo bezala ulertuta). Jakin egin behar da balio duena eta balio ez duena identifikatzen lagunduko dion arau-sistema ezartzen, diziplina eragile batek erregulatuta; horretarako, bi aspektu hartu behar dira kontuan: batetik, guraso eta seme-alaben artekoa ez da berdinen arteko harremana gurasoek seme-alabenganako hezkuntza autoritatea baitute; bestetik, harremanaren oinarrian partehartzea, zaintza, elkarrizketa, sendotzea eta zigorra daude.

Bizitzako eremu guztietan dauzkagu jolas arauak, eta, lankidetzaz sustatzeaz gain, gehiegikeriak ere saihesten dituzte. Arau horiek familian ikasten dira batez ere (eskolan ere bai). Teknologia berriei, eta zehazki sare sozialei dagokienez, erabilpen, ordutegi, edukien kontrola eta abarrekin zerikusia duten arauak dira. Gure seme-alaben adina eta beste hainbat faktoreren arabera aplikatuko dira.

Gaur egun badago gurasoentzako sare sozialei buruzko informazio ugari: nola funtzionatzen duten, kontuan izan beharreko erabilpen arauak zeintzuk diren, sareen alde iluna zein den (badute eta), eta eskaintzen dituzten aukera anitzak. Informazio hori erraz topatu daiteke.

Gizakiok sozialak gara izatez, besteekin harremanak izateko beharra dugu, eta hori da sare sozialen indargunea. Baina horrek ez du esan nahi gure eta gure seme-alaben bizitzako kontu guztiak aireratu behar ditugunik. Sare sozialen oinarriak ezagutu behar ditugu, baina ez daukagu zertan adituak izan. Garrantzitsuena arazoei aurre hartu eta esku hartu ahal izateko beldurra kentzea da.

Beraiekin ordenagailu aurrean denbora partekatzeak lagundu egingo digu, alde batetik, guri geuri ezagutza eta konfiantza hartzen eta, beste alde batetik, gure seme-alabek behar duten pribatutasuna errespetatzen. Hitz egitea funtsezkoa da. Sarean modu aktiboan parte hartzen eta gure seme-alabak babesteko eta haiei konfiantza emateko estrategiak eta abileziak garatzen ikasi behar dugu.

Amaitzeko, Interneten aitatat jotzen den Jon Postel-en esaldi bat: "Izan kontserbadorea egiten duzun hartan eta izan liberala besteengandik onartzen duzunean".

Garbiñe Arrizabalaga

BAIKARAKO Formakuntza Taldea

Jakintzaren kudeatzea administrazioaren alorrean (I)

HONEZKERO INORK EZ DU ZALANTZARIK izango erakunde publikoak jakintzaren ekoizle eta kontsumitzaile handiak direla, eta jakintza zentzuz erabiltzen asmatzen duten heinean, sortzen dutela balio publikoa beren jardunean. Enpresa pribatuetan ez bezala, administrazioak ez dauka errentagarritasuna dela-eta kezkatzen ibili beharrik. Horren ordez, bi kontu hartu behar ditu aintzat beti: herritarren patrikatik ateratako baliabideak biltzen eta behar bezala gastatzen oso eraginkor izatea eta, batez ere, herritarren bizi-kalitatea hobetzea, ematen dizkieten zerbitzu espezializatuen bidez.


Nolanahi ere, erakunde publikoek zenbait arazo larriri aurre egin behar izaten diete helburu horiek beteko badituzte, beste bi kontu hauek direla-eta: batetik, zehatz-mehatz azaldu behar dituzte lortu nahi dituzten emaitzak, eta, are gehiago, zein izango diren emaitza horiek lortu izanaren berri emango duten kudeaketa-adierazleak. Bestetik, zehaztu behar dute zein den emaitza horiek lortzeko inpaktu handiena daukan jakintza kritikoa.

Erakunde publikoak jakintzaren organizazioak dira oinarri-oinarrian eta beren eginkizuna betetzeko erabiltzen duten lehengai informazioa da nagusiki; eta, nola ez, bezeroei ematen dieten zerbitzua, hain justu, jakintza araztua da, depuratua. Kontuan hartuta erakunde publikoen aktibo garrantzitsuena jakintza dela, funtsezkoa da erakunde publiko bakoitzak bere estrategia edukitzea aukera izan dezan bereganatuta daukan jakintzari ahalik eta onura gehien ateratzeko eta, aldi berean, oraindik eskuratu ez arren beharrezkoa duen jakintza eskuratzeko. Sinestezina badirudi ere, erakunde gehien-gehienek ez daukate estrategia finkorik beren aktibo nagusi hori kudeatzeko. Erronka horri aurre nola egin ulertzeko, ezinbestekoa da, lehenik eta behin, denen artean erabakitzea, adostea, zer den jakintza, zer den jakintzaren kudeaketa, nola identifikatzen den eta nola kudeatzen den jakintza.

1. Zer da jakintza?

Jakintzari buruzko definizioa zehaztu behar dugu ahal bezain pronto; definizio ez akademikoa, ahal bada, eta kudeaketa-lanean erraz aplikatzekoa. Adibidez, RAEren hiztegiak ematen dituen definizioak aztertuta ere, ez da batere erraza maiz eta erraz bezain arin erabiltzen dugun hitz hori diseztonatzea. RAEk proposatzen dituen 9 adieretatik hauek dira 3 aipatuena:

1. Jakitearen ekintza eta ondorioa.
2. Adimena, arrazoimen naturala.
3. Nozioa, zientzia, jakinduria.



Ibilbide ofizialari jarraituz gero, argi dago, bide laburra daukagu. Baina jakintza ekintzari lotzen badiogu, gizaki nahiz erakundeek egin dezaketinari lotzen badiogu eta, batez ere, horrek ematen dituen emaitzei, berehalakoan deseginda geratuko dira jakintzaren kudeaketari aurpegiratzen zaizkion kritikak abstrakzio edo xalotasunagatik. Nire ikuspuntutik “erabakiak hartu eta ekiteko aukera ematen dizun horixe da jakintza; aurretik ikasitakoan oinarrituta egin ahal duzun hori guztia da, funtsean”. Horrek esan nahi du, jakintzak aukera ematen dizunez erabakiak hartu eta ekiteko, jakintza demostratzeko modua ekintza bera dela, ekitea,

eta ez soilik hizketa; eta jakintza eskuratzeko modua ere ekitea da (jardutea) eta ez soilik horretaz entzutea edo irakurtzea. Logika hori ontzat emateak berarekin dakar “zer dakizu, horixe zara” aitortu beharra; izan ere, egiten duzuna eskuratutako jakintzaren araberkoa da, eta

etorkizunean zer izango zaren eta zer egingo duzun, jakintza eskuratzeko gaitasunaren neurrikoa izango da. Jakintza ez da zer dakizun, baizik eta zer egiten duzun dakizun horrekin; oso ezberdina da. Nik proposatzen dudana jakintzaren definizio hau nahita da hain irekia, eta ez du soilik normalean jakintza tekniko esaten diogun hori biltzen, ez: horrez gain, abileziak, jarrerak, ahalmenak eta helburu zehatzak lortzeko gauza neurgarriak egiteko aukera ematen duen eta ikasteko modukoa den edozer biltzen ditu.

Jakintzak, horrela ulertuz gero, baditu bereizgarri oso nabarmenak, baina honako hauexek nahi nituzke azpimarratu nik:

- a. Jakintza gizakiei lotuta doa, eta ez da galtzen partekatuz gero. Informazioa behar dugunean, hauxe galdetzen diogu gure buruari: “Non dago?”. Alabaina, jakintza

bila gabiltzanean, hauxe izaten da galdera: “Nork daki hone-taz, edo hartaz?”. Gizakiei hain-hain lotuta egoteak arrisku handia eragiten die erakundeei. Baina hori aztertuko dugu aurrerago. Literaturako Nobel saridun George Bernard Shaw idazleak hauxe zioen: “Zuk sagar bat baldin badaukazu eta nik sagar bat baldin badaukat eta sagarrak elkarren artean trukutzen baditugu, zuk eta nik sagar bana edukiko dugu. Baina zuk ideia bat baldin badaukazu eta nik ideia bat baldin badaukat eta ideioek elkarren artean trukutzen baditugu, zuk eta nik bina ideia edukiko ditugu”.

- b.** Jakintza inkontzientea eta gardena da, eta bere “jabeaz” harago dago. Jende gehienak askoz gehiago daki adierazi dezakeena baino. Bizikletan ibiltzeari buruz daukazu jakintza guztia idazteko eskatzen badizut, zuk paperean jarriko duzun horrek ez du inondik ere erakutsiko zuk benetan zer dakizun. Jakintza magikoa da; badaukazu, baina ez dakizu badaukazu-nik, ez non daukazu, ez nola eskuratu duzun.

2. Zer da jakintzaren kudeaketa?

Gero eta sarriago topatzen dut erakundeen plan estrategikoetan eta *balanced scorecard* delakoetan jakintzaren kudeaketa izeneko ekimenen bat. Ustekabea gero etortzen da, galdetzen dudanean zer dela-eta jaso duten jakintzaren kudeaketa plan horretan, eta zer lantzea pentsatu duten. Izan ere, nik hori galdetu eta gero, isilunea nagusitzen da segundo batzuetan, sorbaldak altxatzen ikusten ditut, bekainak igotzen, eta erantzun hauxe jasotzen dut: “Ez dugu zehaztu”. Baina badaukat, oraindik ere, galdera deserosoagoa ere: “Zer da zuentzat jakintzaren kudeaketa?”. Erantzuna ez da batere erraza, eta ikusteko zenbateraino konplikatu den, idatz ezazu zuk zeuk zuretzat zer den jakintzaren kudeaketa. Zaila, ezta?

Jakintzaren kudeaketa terminoa erraza da ulertzen, baina zaila azaltzen. Zorionez, ezin duzu jakintza ez kudeatu, ez erakunde gisa ez banako gisa ere, derrigorrez kudeatu behar baituzu, erre-alitatea maneiaturiko baduzu eta erre-alitatean jardungo baduzu. Artikulu hau irakurtzen ari bazara, bere garaian ikasitako jakintza bat (irakurtzea) kudeatzean ari zara; gaur egun gai zara jakintza hori berriz erabiltzeko ia ahaleginik egin gabe. Egune-ro-egunero, une oro, horixe egiten duzu, zuk dakizuna kudeatu; bestela, ez zinateke existituko, hori bezain soila da. Harrigarriena da gizaki moduan ondo samar egiten duzula prozesu hori eta erakunde moduan, berriz, itzelezko oztopoak daukazula. Hortaz, botila erdizka betea ikusita, esango dugu erakunde orok existitu ahal izateko kudeatzen duela jakintza. Alderantziz, botila erdi hutsa ikusita, konturatuko gara erakunde inongo efikaziarik gabe ari dela, egiten duenaz jabetzen ez delako, eta are gehiago, nola egiten den ez dakielako: akats berdinak egiten ditu behin eta berriz, gupila berriz asmatzen jarduten da, aukerak eta *know how* alferrik galtzen ditu, ahalegin bikoitza egiten du eta erakunde inteligenteen eta ikasteko gaitasuna daukatenen bila dabilzan talentuak uxatzen ditu.

Jende askok teorizatu du jakintzaren kudeaketaz, eta hainbat eta hainbat definizio eman dituzte, gehientsuenak ikuspegi akademikoak. Definizio formal batek adieraziko luke jakintzaren kudeaketa dela erakunde bateko eta bertako langileen ezagutza zein den jakin, eskuratu, erabili, banatu eta garatzeko tresna eta

jarduera guztien multzoa, zehazki, helburuak hobeto lortzeko asmoz lantzen direnak. Alabaina, hitz bat gailentzen da beste guztien gaineratik, kontzeptua eraikitzen hasteko oinarri: AURRERATU. Jakintzaren kudeaketaren esentzia guztiaren gakoa da edozein zeregin bete behar duzunean, zure erakunde-ak pilatuta daukan adimen eta *expertise* guztia baliatuz bete dezazula, eta ez soilik zuk pilatu duzuna baliatuz. Horretarako, zure erakundeak jakin behar luke, langile bakoitzaren kasuan, eta unean-unean, zer egin behar duen bakoitzak eta zein den dena delako hori egiteko modurik onena, hartara, AURRERATU ahal izateko. Eta ez genuke zientzia-fikzioaz hitz egiten jardun behar, erakundeek eta bertan jarduten direnek, oinarri-oinarrian, lan errepikakorrek egiten baitituzte, eta hori erre-alitatea da. Gaur egun egiten dutena atzo egindakoaren oso antzekoa da, eta bihar egingo dutenaren oso antzekoa ere bada. Hau da, oso gutxitan egiten duzu zure erakunde beste norbaitek jada egin ez duen ezer. Logikoena da zerbait berriz egiten dugunean gai bagara egunero-egunero sortzen dugun memoria kolektibo hori baliatzeko, beti aurreko aldian baino hobeto egitea. Baina, hain begi bistakoa bada ere, ez da sarritan hala gertatzen. Horregatik, jakintzaren kudeaketak eman behar ligukena ez da oso sofistikatua, hauxe besterik ez: beste norbaitek aurretik egindako zerbait egin behar dudanean, lagundu diezadala, berak dakiena erakutsita. Alegia:

- a.** Nork egin zuen nik baino lehen.
- b.** Nola moldatu zen.
- c.** Zer atera zen ondo.
- d.** Zer ez zen ondo atera eta zergatik.

Ez ahaztu erakunde aurreratzeaz ari garela, aurrea hartzeaz, hain justu ere; hortaz, jakin beharreko guztia helaraziko dit, ni bila jardun gabe. Nik bila joan behar izatea justu kontrakoa litzateke. Horretarako, berriz esango dut, nire erakundeak “ezagutu egin behar nau”, jakin behar du zer egin nahian nabilen, zer den behar-beharrezkoa hori egiteko, jakin behar du dena delako hori lehen egin zenean, zerk izan zituen emaitza onenak eta zer hori eskaini niri zuzen-zuzenean.

Izan ere, jakintza kudeatzearen funtsa da ehunka edo milaka burmuinen jakintza baliatzea langile egokiari behar duen informazioa behar duen garai egokian eramatea, ahalik eta erabaki onena hartzeko edo arazoa konpontzeko gai den arte. Jakintzaren kudeaketa bene-benetan lagungarria izango bada emaitzak hobetzeko, ezinbestekoa da erakundearen diseinu jakina prestatzea, elkarlana sarituko duena eta laguntza eman, eskatu eta emateko gune berriak sortuko dituen, bertan dauden denek honela planteatu dezaten beren rola: “Nik dakidan hori nola izan daiteke baliagarri besteentzat, nola lagundu diezaietee? Zer ikasi dezaket besteen esperientziatik, gauzak gero eta hobeto egiteko?”.

“Iraganeko gertakarietaz ikasbidea atera behar dugu, gaur egun-go arazoak konpontzeko eta etorriko diren arazoei aurrea hartzeko”. Halaxe dio enpresa industrial handi baten jakintzaren kudeaketaren ikuspegiak. Bikaina.

Javier Martínez Aldanondo
Catenaria, Jakintzaren kudeaketako
dibisioko gerentea

Buruxkak: Jean Etxepareren liburu malerusa

Aurten bete dira ehun urte Jean Etxepareren *Buruxkak* liburu malerusa plazaratu zela, baina argitara 1910ean eman bazen ere, lehenago bahituta eta gero zentsuratuta egon da 70 urtez. Biziki ausarta suertatu zen XX. mendearen hasierako Euskal Herri santujalean, eta Etxeparek etxeko ganbaran bahituta gorde behar izan zuen. Areago, andregaiak berarekin hautsi omen zuen. Ziurrenez, horixe da euskal literatura osoko jazokunerik erromantikoena.

Argentinan jaioa, Jean Etxeparek Bordelen egin zituen mediku-ikasketak, eta doktore-tesia aurkeztu 1901ean. Aldudera joan zen mediku 1905ean, eta sasoi horretan *Eskualduna* astekarian kolaboratzen hasi zen. Aldudeko medikua guztiz apartekoa da euskal letren Parnaso txikian, bera baita laiko bakarrenetariko bat gure literaturaren historiako elizgizonen segida kolorebakoa. Liburu bi plazaratu zituen, *Buruxkak* (1910) eta *Beribilez* (1931), zein baino zein pozoitsuagoak Villasanteren ustez.

Buruxkak eskandalagarria izan zen, besteak beste sexua eta amodioa baitzituenez solasgai. Jakina, aurrez aurre egin zuen topo orduko ortodoxiarekin, alegia, “Arbelbideren harresia” dei dezakegunarekin: harresi hori euskara zen; euskara, Jan-pierre Arbelbideren –eta beste askoren– aburuz, harresi babeslea zen, isolatzailea, Euskal Herria munduko arrisku eta lanjer guztietatik begiratuko zuena. Jean Etxeparek bete-betean jo zuen ortodoxiaren kontra: sexua-eta, tabu dira; ezinbestean, erdaraz aipa zitezkeen, baina euskaraz ez, euskarak babestu egiten zuen-eta kutsatu gabeko eremu bat, non bertako biztanleak, Lotilandiako euskaldun maitagarriak, Jaungoikoaren lege barruan bizi baitziren, edozein eragin galgarritatik euskarak gerizatuta.

Jainkoari esker, Arbelbideren harresiaren ondorioz, euskaraz ez zegoen inolako liburu labainkorrik, ez zegoen euskarazko liburu “gaixtorik”, soilik erlijio-liburuak. Bake santu hori nahastera etorri zen Etxepareren *Buruxkak*: ezinago subertsiboa izan zen, irentsi ezinekoa.

Etxepareren lehen liburu eder hori bilduma bat da, hogeita sei saioz osatua, *Amodioa* izenekoa tartean. Saio horretan, elkarriketa erara Etxeparek maitasunaren inguruko gogoeta batzuk eskaintzen dizkigu. Beraz, bazkalosteko adiskidegiroan, amodioari buruzko eztabaidan murgilduko dira bazkaltiarak, eta solasean zehar bai maitasunaren eta bai sexuaren inguruko hainbat kontu azalduko dizkigute. Ez dago esan beharrik, horrelakoak debeku ziren euskaraz 1910ean. Urte horietan bikote-ereduak edota amodio librea ukitu ezineko gaiak dira; aipatu ezinekoagoak homosexualitatea, masturbazioa edota zoofilia. Den-denaz mintzo da liburuak. Etxeparek sexuari buruz dihardu, baina ez hodeieta-ko aingeruenaz eta inguru-minguruka, baizik eta haragizko gizon-emakumeen sexuaz, eta zuzen eta esplizituki. *Amo-*

dioa irakurritakoan kargutuko zara norainoko haustura zekarkion ordura arteko euskal letra jainkojale eta ahalketien mundutxoari. Esan gabe doa, Aldudeko medikuak esparru berriak ireki zizkien bai euskarari eta bai euskaldunei ere, orduko ideologia elizkoia gaindituz.

Villasanteren *Historia de la Literatura Vascako* azalpena askoz erromantikoagoa da, eleberri zaharretako amodioa izaten den bezala. Folletoi batekoa litekeen honakoa diosku:

«Antes de ponerlo en circulación, el autor envió un ejemplar del mismo a su prometida. Cuando ésta leyó dichos capítulos, rompió el libro y cortó para siempre sus relaciones con el autor. Este golpe, así como las advertencias de algunos amigos, le hicieron reflexionar y desistió de poner en circulación el libro, aunque no dejaba de regalarlo a tal o cual persona de confianza».

Kolore berebizikoa du haustura dramatiko bikoitz horrek. Imajina ezazu lehena, *rompió*: andregai amorru bizian liburu apurtzen, edo, gurago baduzu, osorik irakurri eta ostean orrialdeak erauzi eta esku-ahurretan zeharo zimurtzen mekanikoki, begirada nonbaiten galduta. Imajina ezazu bigarrena, *cortó*: andregaiaren eskutitz hotz bat, harreman kasik hasi berriari behin betiko kitoa emanez, edo, bestela, igandeko meza nagusiaren ondotik, mantelina buruan, malko gaziak eta gaitzespen isilak nahasiz. Nobela zaharretan bezala.

Etxepareren liburuak ez zeukan parerik ordura arteko euskal literaturan: dela planteamenduagatik, dela darion pentsaera irekiarengatik edota fur-furian zeuden pentsalarien eragin zuzenarengatik, *Buruxkak* apartekoa da guztiz, gure letren errepublikan. Kontua da *Buruxkak* modernoegia suertatu zela Euskal Herri esklerotizatu hartan, eta nekez aurkituko zuen irakurle konplizerik. Egileak, esan ohi denez, liburuaren erdia idazten du soil-soilik; irakurlearen ardura da beste erdia. Etxeparek, baina, basamortuaren erdian ziharduen eta *Buruxkakek* ez zuen irakurlerik erakarri. Jende xumeak ez zeukan eskola nahikorik, eta, jende eskolatua oso hotza zen euskara eta euskal literatura kontuetan.


Kontuak kontu, *Buruxkak* desagertu egin zen ofizialki euskal letren eszenategitik Jean Etxepare hil arte. Piarres Lafittek berrargitaratu zuen 1941ean, baina, *bi kapitulu dohakabeez arindurik eta hitz dorpexko bakar batez*. Zentsurarik gabeko *Buruxkak* berriro argitaratzeko, 1980. urtera arte itxaron behar izan da, hau da, lehen porrotetik hirurogeita hamar urte geroago.

Kepa Altonaga
Irakaslea eta idazlea

Hitz gezidunak

	IRUDIKO HERRIA	▼	Siziliako hiriburua	▼	Mahai-joko	▼	Sari banatzea	▼	Estimulatu, bultzatu
	Zamatze lanak		Itsas arrain		Musika nota		Naiz		
		▶		▼		▼		▼	
	Ipar., berritsu	▶							
	Infin., akitu								
Mendi magalak	▼	Interjekzioa	▶	▼	Burutu	▶			
Erromesen ikurra		Poltsikoa			Nafarroako herria				
▶		▼			▼	Bizkaiko ibaia	▶		
						Ibarra			
Gipuzkoan, zain	▶		Arrainen galgarria	▶		▼	Interjekzioa	▶	
Gipuzkoan, duk			Iratzea, garoa				Gabarra txikiak		
▶			Haurdun utzi	▶	▼		▼		
			Edari alkoholdun						
Errenkada	▶		▼		Uhartea	▶			
Atsegina					2				Musika nota
▶					Arnas ezak hila	▶	▼		Kontsonantea
					Kontsonantea			1	▼
Errep., dantza mota	▶			Pertsona	▶	▼			

Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da

1. Salaketa egilea.
2. Trankila, barea.
3. Departamendua.
4. Behinolako laborarien lanabesa.
5. Edo.
6. Sumendietatik jariatzen den gaia.
7. Suzko armen jaurtigaiak.
8. Zerbait igartzeko egiten den kalkulua.
9. Losintxa, lausengua.

Soluzioak

⊗	S	K	I	N	A	T	U	⊗	F	A	
	S	A	R	I	K	E	T	A	⊗	I	A
⊗	X	A	N	A	G	O	A	⊗	A	K	I
	X	A	K	E	⊗	A	R	R	O	A	K
⊗	P	A	L	A	⊗	U	R	R	I	T	Z
	P	A	L	E	R	A	M	O	⊗	I	I
⊗	B	A	M	A	R	R	A	Z	O	⊗	G
	B	A	K	I	O	⊗	I	R	O	⊗	I
⊗	Z	⊗	A	K	I	⊗	R	O	A	⊗	N
			⊗	S	A	⊗	K	E	L	A	K
			M	A	Z	E	L	A	K	⊗	
			⊗	M	⊗	D	⊗	X	⊗		

H - I T Z g e z i d u n a k

1. Salaketa. 2. Lasnia. 3. Saia.
4. Laita. 5. Ala. 6. Laba.
7. Balak. 8. Kabala. 9. Balakua.

Goitik behera

Xabier Arzoiz Santisteban

VIDEOVIGILANCIA,
SEGURIDAD CIUDADANA
Y DERECHOS
FUNDAMENTALES

SERIE
DERECHOS FUNDAMENTALES
Y LIBERTADES PÚBLICAS

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

CIVITAS



THOMSON REUTERS

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

**Liburu hauek hemen
dituzu salgai:**

**Unibertsitateko etorbidea z/g
20600 Oñati
Tel.: 943 782 000
Faxa: 943 783 177
argitalpenak-ivap@ivap.es**

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

José Ignacio TEJERINA GONZÁLEZ

MANUAL DE EJECUCIÓN URBANÍSTICA



**Liburu hau hemen
duzu salgai:**

**Unibertsitateko etorbidea z/g
20600 Oñati
Tel.: 943 782 000
Faxa: 943 783 177
argitalpenak-ivap@ivap.es**

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA